

DATORRENA

Boterekeria arrazoi bakartzat
hartuta, dena ukatu **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

ANE PORTILLO, ikertzailea:

«Pilula antisorgailuek emakumeen
libidoa apaltzen al dute?» **> 22**

2022ko ekainaren 4a | XVI. urtea • 776. zenbakia
0,50 euro

GAUR8


mila leiho zabalik
www.gaur8.info



HILDAKO SOLDADU ERRUSIAR GEHIENAK GAZTEAK, POBREA ETA GUTXIENGO ETNIKOETAKOAK DIRA



4



12



**Genero ikuspegia ekintza
humanitarioan: emakumeek
hartu dute hitza** 04

Kolonbiako aldaketa, nora? 07

**Ukrainan hildako soldadu errusiar
gehienak pobreak eta gutxiengo
etnikoetakoak dira** 08

**Jakinmin elkartea, haurren jarrera
pentsalaria sustatzen** 12

**Fernando Etxeberria, Bergarako
Aranzadi Ikastolako lehen
zuzendariari elkarrizketa** 17

**Ane Portillo Blanco, Caf-Elhuyar
sariduna: «Sexu grina nahikoa
tabua den gaia da»** 22

Pantaila txiki, umore handi 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



27

SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
Boterekeria arrazoi bakartzat
hartuta, dena ukatu
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Beti
prest
- 11 **Iñaki Altuna:** Hauteskunde
giroa nabari da, gero eta
gehiago
- 16 **Unai Gaztelumendi**
- 20 **Itziar Elizondo:** Ekoizua
- 21 **Iker Barandiaran:**
Arma...tiro...non?
- 26 **Miren Azkarate Badiola:**
Zerrenda beltzaren ondorio
beltzagoak
- 26 **Antton Izagirre Gorostegi:**
Izan ala jardun
- 30 **Olatz Arregi Uriarte:**
Hizkuntza-teknologia
euskararen mesedetan



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Boterekeria arrazoi bakartzat hartuta, dena ukatu

Norbaitek errango balit futbol partida ardatz hartuko nuela idatzi baten abiapuntuan, ni neuk hipotesia ukatuko nuen. Begi bistan agertzen denak norberaren ikusmoldea ezeztatzen badu, ez kexatu, dena ukatu. Hori bilakatu da, hain zuzen, Emmanuel Macronek bigarren agintaldiaren hasieran besarkatu duen lema. Trakets, dorpe eta nagi puntu batekin. Hala azaldu da gobernu zaharberritzeko orduan agintari liberala. Ukazioaren gorazarrea eginez, noiz eta garrantzi handia duten legegintzako bozen atarian.

Azkeneko bost urteetan sorturiko kalteak mesprextatuz, ur zaharrak ez duela errotarik mugitzen sinetsita, karta berdinekin joko diferentea egiteko hautua egin du Eliseoko muslariak. Elisabeth Borne, langabezia saria eskuratzea zailago bilakatu zuen Lan ministro ohia hautatu du gobernu berriaren lemazain. Aurkezpen gutun horrekin aski ez zuenez, sexu bortizkeriagatik salaketak dituzten ministro bi iltzatu ditu Matignonen. Elkartasunen ministro berri izendatuz Damien Abadek buru gainean dituen hodei beltzak egongo ez balira bezala egin du gizon eta emazteen arteko berdintasuna bere presidentetzaren helburu nagusitzat jo zuen agintariak. Gezurraren eremu labaingarrira bertaratuz ezer ez zekiela irudikatu du. Ukatu, egiak azala erre arte.

Errezeta erregosia. Deskuiduaren itxura ematearena han, non aitzinetik kalkulu okerra dagoen. Barne ministroari, denon segurtasunaren zaindariari, susmo usain bera dario. Gerald Darmanin aulkiari itsastea ez da kasualitatea izan, ukazioaz ukazio autoritarismoaren doktrina liburuan lerro berria idazteko promesa baizik.

Tik-tak, tik-tak. Poliziek, txaleko horidunen mugimenduak egin zituen protestak kontrolpean jartzeko aitzakiaz, begirik edo besorik gabe utzi zituzten hamarnaka zauritu horiek ez dute, maluruski, gehiegi itxaron behar

izan konturatzeke finean deus ez dela aldatu, ez onerako behintzat, segurtasun publikoaren ereduari dagokionez. Ukaezina da emazteak kamera aurrean jartzera eraman dituzten salaketa gordinek barrenak astindu dituztela, berdin komunikazio *start system*-aren zein agintaritzatza politikoaren esferetan izerdi hotza sorraraziz. Alta, krisiaren goreneko estaira heltzeko, ezin ukatu, beste partida bat gertatu behar izan da. Parisek antolatuko dituen Olinpiar Jokoetarako bi urte falta direnean, Champions Leagueko finalak entsegu orokorraren izaera hartu zuen. Saint-Denis auzoan eraikitako Stade de Francen gertaturiko porrota neurtzeko goizegi bada ere, lurrikara handia gertatu da. Mobilizazio sozialen aurka azote bilakatu zen Didier Lallement Parisko poliziaren prefetaren aho beretik mintzatuz Darmanin ministroak dena ukatzeko

Poliziak gaseztatu zituen futbolzaleak kriminalizatuz txartel faltsuen gainean puztutako xifrak eman zituen Darmaninek, Parisko gar olinpikoa dar-dar jarri duen petto ikaragarria disimulatu nahian

ohiturari heldu zion Liverpool futbol taldeko zaleek pairatu zuten polizia jazarpen zein segurtasun arazoaren jatorria desitxuratuz. Alta, txartel faltsuak omen zituzten 40.000 jarraitzaile gaizkileztat agerrarazteko baliatu zuen txorimaloa berehala jan zuten pipiek. UEFAk eta Frantziako Futbol Federazioak eginiko behin-behineko ikerketak 2.800 txartel ingurura mugatu duelako iruzurra. Denon bistan gertatzen diren boterekeriak mozorrotzeko ohitura duen ministroa ez zen gai izan aurreikus-teko, besteak beste, ingelesez eginiko kontakizunak fite biluztu zezakeela bai bere agindupean jardun zuten polizia indarrek bai haien gabeziak eta desmasiak estaltzeko xedez berak saldu zuen bertsio ukatzailea. •

GENEROA ERANTZUN HUMANITARIOAN

Bi gako: hitza ematea eta lehentasunak kontuan hartzea, emakumeak «erantzuten lehenak» izaten direlako

 JENDARTEA / Nerea Goti

Ekintza humanitarioak badaki ezin dela neutroa izan, genero ikuspegia behar du krisiek areagotzen dituzten desparekotasunen aurrean. Bilbon, mahai gainean jarri dute gaia, eta emakumeei mikrofonoa eman dien lana aztertu dute. Sufrimendu testuinguru ezberdinetatik, parte hartzeari utzi gabe, argi diote behar duten erantzuna zein

Azken urteetan, ahaleginak egiten ari dira erantzun humanitarioan genero ikuspegia txertatzeko. Nazio Batuen Erakundearen (NBE) gomendioari jarraituz, erakundeen eta eragileen konpromiso argi bat dago, baina hitzak ez dira beti esku-hartzeetan islatzen. Horren atzean faktore, inertzia eta oztopo ugari daude, eta zailtasun handiko testuinguruak. Hala ere, errealitate ezagun bat dago: gatazka armatuek eta natura hondamendiek inpaktu ezberdinak eragiten dituzte emakumeengan, haurrengan... eta diskriminazioa eta zaurgarritasuna areagotu egiten dira beste aldagai batzuk gurutzatzen badira: egoera zibila, etnia, erlijioa edo dibertsitate funtzionala, besteak beste. Ekintza humanitaria, beraz, ezin da neutroa izan.

Jakina da krisi humanitarioetan, aldezturik zeuden desparekotasunen ondorioz, emakume eta neskatilek «ondorio kaltegarriak bizi izateko aukera gehiago» dutela. Baieztaatu den beste kontu bat da krisiek gogorago kolpatzen dituzten horiek «funtsezko eragileak» izaten direla eduki ohi duten erresilentziagatik. Askotan, gainera, lehenak izaten dira egoera berrietara egokitzen. Emaku-

meak ekonomikoki ahalduentzeko proiektuak adibidetzat hartuta, Bilbon aztertu den esperientzia batek beste faktore bat agertu zuen: «Emakumea ahalduentzen denean familia osoa ahalduentzen da». Estrategiak fintzea da gakoa, eta beste esperientzia, bizipen eta gogoeta batzuk inspirazio iturri izan daitezke.

GOGOETA EZBERDINAK EZAGUTARAZI

Helburu horrekin, hain zuzen ere, esperientzia ezberdinak ezagutu, gogoeta ezberdinak ikusarazi eta oztopoak gainditzen laguntzeko

«Who holds the microphone?» azterlanak Bangladeshen, Kolonian, Jordanian eta Ugandan bildutako emakumeen ahotsak plazaratzen ditu. Behean, bertako irudi bat. NBE EMAKUMEA

asmoz, nazioarteko erakundeetako ordezkariak eta aholkulariak bildu ziren maiatzaren 23an eta 24an EHUKo Bizkaia aretoan, «Generoa ekintza humanitarioan. Nola bihurtu gure konpromisoa errealitate» jardunaldietan, Bilbo-ko Udalak eta eLankidetzaren Garpenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak antolatuta.

Neutroa izan ezin den ekintzara hurbiltzeko beste gakoetako bat eman zuten: estrategiarik ez izatea «lehendik dauden diskriminazio eta desberdintasunetan» sakontzea da.

Hala ere, erantzun azkar bat eman behar denean, nola jokatu genero ikuspegia kontuan hartuta? Nola aztertu, komunitateetara nola heldu? Horrelako galderak jarri zituzten mahai gainean, aditu ezberdinen ikuspuntuak entzuteko, ekuazioan sartzen den beste aldagai bat kontuan hartuz, lurralde horietan bizi den egoeraren ondorioz egon daitezkeen errealitateak: mugak itxita, biziak arriskuan...

Ekintza humanitarioaren nola-



baiteko ebaluazioa egin eta emakumeengana heltzeko modua aldatu duen proiektu bat izan da jardunaldien protagonistetako bat. “Who holds the microphone?” (Nork eusten dio mikrofonoari?) izenburua du ikerlanak, eta Bangladeshen, Kolonbian, Jordanian eta Ugandan krisi humanitarioak jotako emakumeen ahotsak bildu ditu. Eskuragarri dago NBE Emakumeak erakundearen webgunean.

Emakume horietako batzuk kanpamentuetan bizi diren errefuxiatuak dira; beste batzuk, euren komunitateko liderrak. Luisa Dietrich egitasmoaren koordinatzailea Bilbon izan zen, Peace Security-k eta NBE Emakumeen Ekintza Humanitarioak agindutako lan hori azaltzeko. Sistema humanitarioak beste aldean dauden horiei entzuteko duen beharraz hitz egin zuen, baita entzute horretatik ateratako ondorioei erparatu beharraz ere.

Generoan aditua da Dietrich. Oxfameko Human taldean aritu da, Sierra Leonan, Etiopian, Nepalen, Iraken eta Yemenen, eta generoari buruzko zenbait analisi humanitario egin ditu NBERentzat eta nazioarteko hainbat antolakunderentzat. Zuzendari eta aholkulari independentea da Gender Consulting erakundean.

“Who holds the microphone?” lanak ekintza humanitarioko testuinguruetan izandako aldaketa eraldatzaileak ikertu behar zituen. Kezka bat zegoen lanaren abiapuntuan: krisiek kaltetutako emakumeen eta nazioarte mailan erabakiak hartzen dituztenen artean –«gizon zuriak normalean»– dagoen hutsunea. Dietrichek gogora ekarri zuen akordio handi bat izan zela munduko zortzi emailen artean ekintza humanitarioaren eraginkortasuna frogatzeko, baina akordio hori generoaren aurrean «itsua da». Ildo horretatik, Care antolakundeak



Luisa Maria Dietrich, «Who holds the microphone?» azterlanaren koordinatzailea, Bilbon.

Raul BOGAJO | FOKU

2018an argitaratutako txostenean aipatutakoa: genero ikuspegiaren aldeko konpromisoak ba daude, baina ez dira oinarrietara heltzen, ez daude kaltetutako emakumeengandik hurbil.

Lanaren helburua emakumeei eurei ahotsa ematea zen, bizi dutena lehen pertsonan kontatu zezaaten, eta nola eta zer kontatu ere haien artean erabaki zezaaten. Jordanian, Kolonbian, Ugandan eta

Bangladeshen lokalizatuta daude bideoak, eta emakumeek eurek grabatutako bideoek eta bideoklipak osatzen dute txostena.

HITZ EGITEKO BOTEREA

Izenburua lanaren espirituaren metafora da, Dietrichek aipatu zuenez: mikrofonoa izatea botere izatea da. Parte-hartzaileek euren artean adostu zuten nork hartu behar zuen hitza eta zer gai aipa-

tu behar zituen; euren lehentasunak zehaztu ahal izan zituzten. Horixe da, adituaren iritziz, sistema humanitarioaren ardatza izan beharko litzatekeen gogoeta.

Emakumeengana hurbiltzeko modua ere aldatu duela aipatu zuen. «Pertsona bati begiratzeko modua sistema humanitarioaren erronketako bat da». Hau da, emakumeei biktima gisa edo botererik izango ez balute bezala be-

giratzearen ideia behingoz baztertze beharra nabarmendu zuen, «erabakiak hartzen dituzten eragile aktibo gisa» ikusteko, ez «onuradun gisa».

Emakume talde horiei ekintza humanitarioaz duten iritzia berruz galdetu zieten. Guztira, 470 parte-hartzaile baino gehiagorekin hitz egin zuten. Bilboko topaketetan bideo horien pasarte batzuk ikusi ahal izan ziren, hausnarketekin uztartuta.

Ugandako kanpamentu batean dauden Hego Sudaneko emakume errefuxiatuak dira bideo baten protagonistak. Hitz egiten duen emakumea seme-alabekin bizi da kanpamentuan. Kamera aurrean kontatzen du krisiak goitik behera aldatu diela bizitza. «Hego Sudanen etxean egoten nintzen, kozinatu eta seme-alabak zaindu behar nituen; orain lider bat naiz, beste emakume batzuekin hitz egin ahal dut, aholkuak eman...». «Erakunde asko etortzen dira eta zerbait nola egin esaten digute; horregatik, gizonekin biltzen garenean, jelskor daude eta Uganda emakumeena dela esaten dute», dio.

Ekintzaile humanitarioekin di-tuen harremanez galdetuta, faltan hartzen du emakumeekin aparteko bilerak izatea. «Ez daukagu emakumeekin bakarrik hitz egiten duen erakunderik, gizonak egiten digutenaz aske hitz egiteko», agertzen du. Erakunde humanitarioentzat mezurik ba ote daukan esanda, irabaziak lortzeko jarduerak eta formazioa eskatzen ditu emakumeen izenean.

Ahalduntze ekonomikoaz aparte, bada emakume talde guztien eskaera komun bat, era batera edo bestera planteatuta: emakumeentzako espazio bat izatea.

Hego Sudaneko emakumeekin izandako esperientziari begira, testuinguruaren aldaketa azpimarratu zuen Dietrichek, Hego Sudanen ezinezkoa baitzen ema-



kumeekin hitz egitea. «Hego Sudanen batzar batera joaten ginean, gizonak esaten ziguten ‘emakume bat zara, ezin duzu hitz egin’, baina Ugandan hitz egiteko eskubidea daukagu, edozein gauzari buruz galdetu ahal dugu. Uganda herrialde zabalenetako bat da eta herrialde mugakideetako errefuxiatu kopuru handi bat jasotzen du».

AUKERAK IDENTIFIKATZEA

Ekintza humanitarioan aritzen diren eragileei zuzendutako beste mezu bat utzi zuen: aldaketa eraldatzaileak ez direla automatikoak, baina «aukerak» daudela eta horiek «identifikatu» behar direla. Erantzun kritikoak eta negatiboak entzuteko prest egon behar dela gaineratu zuen, baita batzuetan nahasten diren sentimendu negatiboak eta positiboak ere. Gogora ekarri zuen behin diru sarrierak izatea lortzeko proiektuetan murgilduta zegoen emakume batek adierazi ziola gizonak berriaz ardura guztia hartzen bazuten lasaitua hartuko zuela. Sentimendu horren atzean

emakumeek daukaten gainkarga dagoela aipatu zuen, eta epaitu beharrean konplexutasun horietaz jabetzearen garrantziaz ohartarazi zuen.

Bangladesheko kanpamentu batean bizi diren rohingya emakume errefuxiatuak dira proiektuko beste parte-hartzaile batzuk. Kameraren aurrean jarritako emakumeek Myanmarreko Gobernuari zuzendutako eskaera politiko argiak utzi zituzten. Dietrichen gogorarazi zuenez, euren erlijioa askeago bizitzea zen egiten zuten eskaeretako bat, baina orain ikusgarriagoak direla onartzen zuten: «Espazio publikoetan gaude horrela egin behar dugulako». Dietrichen esanetan, «gure ideiak eta ditugun irudiak kuestionatzeko gonbidapen bat da».

Bangladeshera heldu zirenean, etxerik gabe, kalean negarrez ibili zirela onartzen zuten emakume horiek 400 hatz marka bildu zituzten euren eskubideen defentsan eta Nazioarteko Auzitegira jo zuten. Formulaturako eskaera politikoak askotan ez dira eragile humanitarioen gustukoak izaten,

«ez ditugu entzun nahi», baina emakume rohingyek eskaera horiek plazaratzeko baliatu nahi izan zuten bideoa.

Testuinguru guztietan emakumeek parte hartzeko bitartekoak behar dituztela azpimarratu zuen Dietrichen, eta horiek alfabetatzarekin, hizkuntza gaitasunen bueltako proiektuekin edo garraiorako funts malguekin lotuta egon daitezkeela azaldu zuen.

Kolonbiako Choco departamendua da bideoan agertzen den beste kokaleku bat, eta ekintza humanitarioarekin oso kritikoak ziren iritziak aurkitu zituzten han. Emakume horien ustez,

«Generoaren aldaketa eraldatzailea testuinguru guztietan azaleratzen da; irekitzen diren ateak dira, sortzen dira. Identifikatzea da erronka», azaldu zuen Dietrichen

Generoan eta ekintza humanitarioan adituak nabarmendu zuen istorio horietako emakumeen lan aitzindariak boluntario gazteen estereotipoa apurtzen duela

Proiektuan parte hartu duen komunitateetako bat, irudian. Azterlan osoa, bideoak eta bideoklipak barne, NBE Emakumeak erakundearen webgunean dago eskuragarri. NBE EMAKUMEAK

erantzun humanitarioa hirietan geratzen da. «Ez da berdina hiriko emakumea edo landa eremuko emakumea izatea, landa eremuko emakumeak gerra bikoitza duela eta laguntza ez zaiolako iristen ez instituzioetatik, ez gobernutik, ez beste inorengatik», dio komunitaterik komunitate 124 kontzejutara joan izana gogoratzen duen emakume batek.

Hausnarketa horien harira, emakumeen pertzepzioa entzuteko beharra defendatu zuen Dietrichen, errealitate bat islatzen duten narratibak diren heinean. Izan ere, laguntza humanitario jarraitu baten beharra partekatzen dute, kasu, baina baita erabiliak izatearen ideia ere.

Kolonbian edo Jordaniako kanpamentuan dauden emakume siriarren mezuei begira, beste go-goeta bat utzi zuen lanaren koordinatzaileak: «Testuinguru ezberdinetan aurkitzen dugu emakumeak direla erantzuten duten lehenak. Euren lan aitzindariak boluntario gazteen estereotipoak apurtzen ditu». Eragile humanitarioekin harremanetan jartzen dituzten ‘konektoreen’ papera azpimarratu zuen. «Emagin rohingyek etxetan dauden beharrianen ezagutza pribilegiatua dute, baina ez dituzte erantzun humanitarioetan sartzen, ezta ezkontzarako gutxieneko adina 18 urtetan jartzea bilatzen duten imanak ere».

Kolonbiara itzulita, Dietrichen azpimarratu zuen emakume horiek korrika joan zirela aktore armatuen eskuetan konfinatuta zeuden eta gosez hiltzen ari ziren komunitateetara laguntza ematera, euren bizitzak arriskuan jarritz. «Ekintza humanitarioak zertan lagundu zezakeen galdetzean, argi erantzuten dute: txalupa azkar bat eta emakumeentzako aterpe bat», ez bata ez bestea ez ziren sartzen eman zitekeen erantzunean, Dietrichen aipatu zuenez.



Federico PARRAJ/AFP



IKUSMIRA

KOLONBIAN, ALDAKETAREN NORABIDEA AIREAN

Kolonbiarrek aldatetaren alde bozkatu zuten maiatzaren 29an. Aldaketa horren norabidea ez dago argi, ordea. Itun Historikoa koalizioaren hautagai Gustavo Petrok irabazi zuen arren, ez zuen boto nahikorik lortu (%50) lehen itzulian presidente izateko eta ekainaren 19an bigarren itzulian Rodolfo Hernandez populistaren aurka neurtuko da. Federico «Fico» Gutierrez eskuineko hautagaia hirugarren gelditu zen, bost miliotik gora boto lortuta. Emaitzak jakin ahala, Hernandezen alde bozkatzera deitu zuen: «Kolonbiari Petro ez zaio komeni» eta Bogotako alkate ohiak irabaziz gero «gure familiak eta seme-alabak arriskuan egongo dira», argudiatu zuen. Momentuz, «TikTok-en erregea» den Hernandezek matematikak bere alde ditu. Uri-bismoaren ordezkari esanguratsuek sostengua adierazi diote «Trump kolonbiarrari». Petrok gutxienez milioi bat boto gehiago beharko ditu Kolonbiako lehenengo presidente ezkertiarra bilakatu ahal izateko. Adituen hitzetan, Hernandezek Petrok baino aukera gehiago ditu hautesleen esparrua zabaltzeko, nahiz eta proiektu politiko sendorik ez eduki eta ahobero hutsa izan. Aldaketak hartuko duen joera zehazteko zeresan handia izango du te gazteek eta emakumeek, zalantzati daudenek eta lehenengo itzulian abstenitu egin zirenek. Parte-hartzea 70eko hamarkadatik egon den handiena izan bazen ere, 21 milioi pertsonak bozkatu zuten, 38 milioi kolonbiar deituta zeudenean. Aina Lertxundi

UKRAINARA, HILTZERA

Hildako soldadu errusiar gehienak gazteak, pobreak eta gutxiengo etnikoetakoak dira

ERASOALDIA / GAUR8

Hildako soldadu errusiarren kopurua ezkutuan gordetzen du Moskuk. Baina jakina da asko oso gazteak direla, jaioterri herrialde erraldoian dauden eskualde pobreenetakoak direla eta gutxiengo etnikoek proportzioz presentzia handia dutela. Hori diote, behintzat, adituek.

Kremlinek ez du gaurkotu bere baja militarren balantzea pasa den martxoaren 25etik. Orduan, Ukrainako inbasioari ekin zionetik hilabete bat eta egun bat igaro zenean, soldaduen artean 1.351 hildako izan zirela onartu zuen.

Baina ordutik hona ia beste bi hilabete igaro dira eta liskarrek gora egin dute. Ukrainako Gobernuak 30.300etik gora soldadu errusiar hil dituela aldarrikatu du, baina Mendebaldeko aditu militarrek eurek ere gehiegikeriatzat jotzen dute. Hala ere, ziur daude Errusiak berak bere bajak gutxietsi egiten dituela.

«Baliteke Errusiak izan dituen galerak otsailean inbasioan konprometitu zituen lurreko tropen herena izatea», ziurtatu du egun hauetan Britainia Handiko Defentsa Ministerioak; hau da, 50.000 soldadu hil edo zauritu direla esan nahiko luke horrek.

HIRU ZAURITUTATIK BAT HILDA

Hiru zauritutatik hildako baten ratioa –Moskuk berak iragarri zuena– onartuz gero, 12.500 lirateke hiru hilabeteotan hildako soldadu errusiar. Kopuru hori zuzena dela ziurtatuko balitz, ez legoke Afganistango inbasioan (1979-1989) Armada Gorriak ofizialki galdu zituen 15.000 soldadue-

Ukrainako gerratik at ere betidanik eta oro har sumatu izan den fenomeno da. Gerran hil diren Errusiako soldaduen artean gehiengoa gazteak, pobreak eta Eurasiako herrialde erraldoian bizi diren gutxiengo etnikoetako kideak ziren. Kaukasokoak, gehienbat Dagestanekoak, eta Erdialdeko Siberiakoak, kalmukiarrek batez ere.

tatik urrun. Porrot hark izugarrizko trauma eragin zuen orduko gizarte sobietarrean.

«Legezko gudan hil diren gure armakideen aurrean belaunikatzen gara», adierazi zuen Vladimir Putin Errusiako presidenteak nazien aurkako 1945. urteko garaipena urtero aldarrikatzen duen maiatzaren 9ko ekitaldian egin zieten omenaldian.

GALERA GAINDIEZINA

Mediazona webgune errusiarzaleak, bere aldetik, gerran maiatzaren 6ra arteko epean 2.099 soldadu errusiar hil direla plazaratu du; hori bai, onartutako iturrien datuei ja-

rraituz. Komunikabide horren arabera, gehienak 21-23 urte bitartekoak ziren. Eta 74k ez zuten 20 urte beteta. Gehienak Errusia hegaldetik iritsitakoak ziren, batez ere Ipar Kaukasokoak –gehiengoa musulmanak– eta Erdialdeko Siberiakoak.

Proportzioan, aldiz, hildako artean gehienek (135) Dagestanen, Ipar Kaukason, zuten jaioterria. Zerrendan bigarrenak (98) buriatiarrak dira –Siberiako Buriatian bizi den gutxiengo mongoliarra–.

Afp agentziak Dmitro aurkitu zuen Zaporizhia Ukraina hegoaldeko hirian, apirilean. Mariupolen setioaren lehen hilabetea bizi izan zuen. Oku-

patzaileen hiru olatu bizi izan zituztela dio. Iritsi omen ziren lehenak Donbasseko errusiarzaleen miliziak izan ziren. Bigarrenak, buriatiarrak izan ziren, «dena lapurtu zutenak». Azkenak txetxeniarrek izan ziren, *kadirovtsi* milizianoak, bere benetako izena eman nahi ez duen mediku horren testigantzari jarraituz.

«Errusiako soldadu eta ofizial gehienak herri txikietatik datoz. Horrek hezkuntza, gizarte eta ekonomia arloetan estratifikazioarekin zerikusia du», ohartarazi du Pavel Luzinek, Riddle Russia web-komunikabideko hizlariak.

Izan ere, Armadaren atal horietan zerbitzu militarra egin ahal izateko betebeharrak gutxiago eskatzen dira. Aitzitik, preskakuntza handiena duten soldaduek eta ofizialak bihurtuko



Soldadu errusiarrek zaintza lanetan Kakhovkako zentral hidroelektrikoaren inguruan. Olga MALTSEVA | AFP

direnek beste batzuk nahiago dituzte, esaterako, «aire edo espazio indarrak, indar balistiko-estrategikoak edo marina»

Esan behar da estratifikazio hori ez dela Errusian soilik gertatzen, mundu osoan baizik, baita Mendebaldeko herrialde garatuenetan ere.

DAGESTAN

Ipar Kaukasoko Dagestaneko bertako komunikabideetan sarritan agertu dira hildako soldaduen familiartekoek ardura-dun politikoen aldetik doluminak nola jasotzen dituzten erakusteko irudiak.

Dagestan Errusiako eskualderik txiroenetarikoa da eta 90eko hamarkadan matxina-da islamiar bat pairatu zuen. Txetxenien ondoan dago.

Kamil Iziiev Buinakski barrutiko arduradunak bideo bat igo zuen Telegramen. Frontean hildako bost soldaduren senideen artean dirua banatzen agertzen zen. «Bizitzen jarraitu behar duzue eta harro egon behar duzue zuen seme-alaben aitek ohorez beren bizitza eman zutelako», esan zieten.

Moskuk ofizialki onartu zuen lehen hildako soldadua Nurmagomed Gadzhimagomedov zen, Dagestanekoa, bere kideak salbatzeko hil zena, iturri ofizialen arabera.

Vladimir Putin Errusiako presidenteak hilondoko domi-



Irudian, Vadim Shishimarin soldadu errusiarra. Ukrainak biziarteko kartzela zigorra ezarri dio gerra krimenak leporatuta. Sergei SUPINSKY | AFP

na eman zion martxoaren 4an eta Errusiako gutxiengo etnikoen papera txalotu zuen orduan. «Errusia moduko herrialde plurinazional eta indartsu baten parte izatearekin, mundu honen parte izatearekin, harro nago», esan zuen Ipar Kaukasoko gerraren hondakinetatik 2000. urtean boterera iritsi zenak.

«Errusiako soldadu eta ofizial gehienak herri txikietatik datoz. Horrek hezkuntza, gizarte eta ekonomia arloetan estratifikazioarekin zerikusia du», ohartarazi dute adituek

Gogoratu behar da estratifikazio hori ez dela Errusian soilik gertatzen, mundu osoan baizik, baita Mendebaldeko herrialde garatuenetako armadetan ere

UKRAINAKO ARMADAK GEHIENEZ 3.000 HILDAKO BAINO EZ DITU ONARTZEN

Ukrainak soldaduen artean 2.500- 3.000 hildako baino ez ditu onartzen, Errusiaren inbasioa hasi zenetik dagoeneko hiru hilabete igaro direnean. Hildako zibilen kopurua herrialde osoan 3.930era iristen dela gaineratu dute iturri ofizialek.

Zenbaki hori sinesgaitza da adituentzat. Haien iritziz, litekeena da gerra hasieran baja gutxi izatea, Errusiako Armada Kievera bidean joan zenean defentsa arina egiteko gai zirelako.

Aitzitik, Kremlinek estrategia aldatu eta bere indarrak Ukrainako ekialdean eta hegoaldean bildu zituenetik, egoerak okerrera egin du. Are gehiago, Errusia Donbass guztia eskuratzeko bere artilleria astun indartsua erabiltzen hasi denetik.

Volodimir Zelenski Ukrainako presidenteak berak onartu du azken asteetan egunero 60-100 soldadu ukrainar hiltzen ari direla. Eta 24 orduan, zaurituak 500 bat izaten direla.

“The Kyiv Independent”-en datuen arabera, zauritutako soldaduak 10.000tik gora lirateke.

Errusiak aspaldi dela eman zituen datu batzuetan 40.000tik gora ukrainar hil edo zauritu direla adierazi zuen. Azkenaldian ez ditu datuak gaurkotu.

“The Kyiv Independent” Ukrainako albiste atariak jaso dituen datuak Fiskaltza Nagusiak eman ditu jakitera eta, hor diotenari jarraituz, bonbardaketetan 234 haur hil dira. Era berean, beste 433 haur zaurituak izan dira.

Hala ere, zenbaki hauek ez direla erabatekoak ohartarazi du Fiskaltzak, ezin izan delako kontaketa zehaztu liskarrek dirauten eremuetan edo Errusiak kontrolpean hartu dituen gunetan.

Gauza bera gertatzen da hildako edo zauritutako zibilekin (4.532). Askozaz gehiago izan daitezkeela ohartarazi du Kievek, zenbatzeko zailtasun handiak dituztelako.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Beti prest

Hor zaude. **Beti bezain prest edozein laguntza eskariri, edozein ondorez edo tristurari eskua luzatzeko.** Behar duenari entzuteko prest. Hain eskuzabala eta atsegina. Beti irribarre atsegin horrekin, begirada konplizearekin eta bihotz handi batekin. Beste behin, hor zaude, besteiei aukerak eskaintzen. Baina zergatik zara hain gogorra zurekin? Zergatik ez dizkiozu zure buruari besteiei ematen dizkiezun aukera berberak ematen?

Gauza harrigarri bat dago. Pertsona asko ibiltzen dira bizitzan, besteekiko harreman eta sentimenduak norberarekiko maitasunak zehazten dituela jakin gabe. Merezki dudana bezala maite ez badut neure burua, besteek falta zaidana ematea itxarongo dut; eta hori ez da inoiz gertatzen, hortik betiko sufrimendua eta horrek mendeko harremanetara eramango gaitu.

Zenbat maite duzu zeure burua? Pentsatu. Agian ez diozu zeure buruari galdera hori egin, edo ez duzu horretaz hausnartu ere egin. Ohitura txarra dugu gutaz ahazteko. Existituko ez bagina bezala, gure begiekiko ikusezinak bagina bezala, gure burua zaintzea gure lehentasunen zerrendatik kanpo balego bezala. Gure buruarekin hitz egiteko dugun moduak eragina du sentitzen garen eran.

Arazoa da ia ez dugula horretan pentsatzen. Jasotzen ditugun mezu guztiek modu batera edo bestera eragiten digute, batez ere gure haurtzaroran. Izan ere, horietako batzuek gure nortasuna eratzen dute, eta beste batzuek agindu gisa funtzionatzen dute, eta hauek betetzen ez ditugunean errudun sentitzen gara. Gure barrutik sortzen den barne kritikariak, nola pentsatzen, sentitzen eta jokatzeko du-

gun epaitzen du. Horretarako, edozein estrategia baliatzen du: «ez zait ezer ondo ateratzen» edo «desastre hutsa naiz» bezalako bakarrizketak gure barne kritikariak bidalitako adibideak dira. Mezu horiek hain integratuta dauzkagu, ezen egia absolutuaren balioa ematen baitiegu.

Emozioen munduko aditu askok azaltzen digute norberaren maitasunaren arazoaren gakoa gure hezkuntzan dagoela. Ez digute irakasten geure burua maitatzen, mugak jartzen, gure gaitasunetan konfiantza izaten. Hori guztia dela-eta, pixkanaka-pixkanaka autoestimurako ordezkari bat sortzen dugu, besteekin ditugun elkarrekintzetan soilik oinarrituta.

Nork bere burua maitatzea, baloratzea, baliozkotzat jotzea eta nahi duena merezi duela sentitzea osasungarria da. Horregatik da garrantzitsua lorpen txikiei balioa ematen ikastea. Mesedez, ez ahaztu egunero gustura egiten duzuna. Ez atzeratu zure ahaleginak, handiak eta txikiak. Batzuetan zure egunarekin jarraitzeak asko eskatzen dizu. Lortzen baduzu, ezagutu ezazu zeure burua. Dena aurpegiratzen, dena kritikatzeko saiatzen den ahots txiki horri aurre egin. Zeu zara zarenari eta egiten duzunari balioa emateko betebeharra duen lehena. Pentsatu. •

saioaaginako@gmail.com



«Gure buruarekin hitz egiteko dugun moduak, eragina du sentitzen garen eran».

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Iñaki Altuna**

Hauteskunde giroa nabari da, gero eta gehiago

Amaitzera doa, urtebete baino gutxiago falta da. Hauteskunderik gabeko tarte amaitzera doa Hego Euskal Herrian. Halako tarteak ondo aprobetxatu behar direla esan ohi da, hauteskunde garaietan egin ezin dena egiteko eta gai potoloetan ahal bezainbeste aurreratzeko, baita norberaren alderdi edo mugimendu politikoa sendotzeko ere. Askotan, maizegi, ez dira aurrez egindako espektatibak betetzen eta hauteskunderik gabeko epea amaituta epe hori behar beste aprobetxatu ez delako ustea zabaltzen da. Politikaren errealitatea.

Jakina, Hego Euskal Herriaz ari gara, Iparraldean hauteskundeetan murgildurik baikaude bete-betean. Duela aste gutxi presidentzialak izan ziren, eta, espero bezala, Macronek irabazi zuen. Orain Frantziako legebiltzarreko hauteskundeak datoz. Aurreko aldian, Macronek lehen garaipen handi hura lortu ostean, presidente berriaren hautagaiak gailendu ziren Estatu osoan. Gehiengo oso zabala lortu zuen, nahiz eta bakarren batzuek ohiko alderdi egiturarik ez izateak kaltetuko zuela iragarri. Oraingoan litekeena da Macron estuago ibiltzea, higadura jasan du urteotan eta datozen hauteskunde hauetan hori nabarmenago ageriko da.

Estatu espainolean ere oraintxe badira hauteskundeak, eta, egia esan, euskal indar abertzaleek –eta batik bat EH Bilduk– Espainiako Gobernuak behar dituen gehiengoak lortzeko duten eragina hainbeste nabarmendu denetik, hauteskunde horiek egite hutsak ondorioak ditu gurean, eta ez oso onak. Izan ere, boz egunak hurbiltzen direnean euskal agendako gaiak gelditu ohi ditu Madrilgo Gobernuak, horietan sortzen den zalapartaren beldur delako PSOE, botoak galduko dituelakoan. Seguru asko, egun gutxitan izango diren Andaluziako hauteskundeek kontu bat edo beste geldiarazi edo mantsotu dute.

Bestalde, Sanchezen gobernuaren beraren egonkortasun hauskorra ere berriro azaleratu da gobernu sozioen arteko ika-miketan, Alberto Nuñez Feijoo buru duen PPren hautagaitza berriak eskuinaren –eta ultraeskuinaren– zikloa lehenbailehen iristea behartu nahi duen bitartean. Moncloa dago jokoan.

Nolanahi ere, udal eta foru hauteskundeetan hitzordua jarrita dago datorren primaderarako, eta dagoeneko gurean hasi dira hautsak harrotzen lasterketa horretarako, direla inkestak, direla gobernuen barruko krisiak, direla hautagaitzen aurkezpenak...

Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan EH Bildu indar daiteke. Hori da behintzat inkestek diotena eta askoren ustea. Halere, tokian tokiko hausnarketa ere egin beharra dago. EH Bilduk ez ezik, EAJk ere gora

Udal eta foru hauteskundeetan hitzordua jarrita dago datorren primaderarako, eta dagoeneko gurean hasi dira hautsak harrotzen lasterketa horretarako

egingo duela dio hainbatek. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jeltxideek indartsu segituko dutela dirudi; besteak beste, Euskal Herrian gainbehera egin duen eskuineko espainolismoaren boza leku askotan kapitalizatzea lortzen duelako.

Nafarroako egoerak piztuko du arreta berezia. Bi legegaldi beteko dira UPN gobernutik kanpo geratu zenetik, nahiz eta bi legegaldi horietako bakoitzean gobernu ezberdinak izan diren, Uxue Barkosen eskutik lehengoan, eta Maria Chiviteren eskutik bigarrenan. Arazo asko izan dituen eskuina ez da berriro Nafarroako Gobernura erraz iritsiko, baina horretan beste indarren ardurak eta ausardiak –edo ardurarik ezak eta koldarkeriak– asko izango dute esateko, onerako edo txarrerako. •

HAURRAK FILOSOFO?

Haurren jarrera pentsalaria sustatzeko saioak antolatzen ditu Jakinmin elkarteak

📁 **FILOSOFIA** / Xabier Izaga Gonzalez

Nor zara zu? Zer da haurra izatea? Zertarako behar ditugu lagunak? Hilezkorra izan nahiko zenuke? Nork dauka askatasun handiagoa, zuk ala zure gurasoek? Zeintzuk dira zure ametsak? Zergatik gertatzen dira gerrak? Non-dik sortzen da edertasuna?».

Horrelako galderen inguruko ikerketa egiteko detektibeen bila ari da Jakinmin elkarteak. Batez ere detektibe txikiak nahi ditu, «bizitzaren misterio handiak arakatzeko prest dauden haur pentsalariak». Ez dago zertan berehalaxe erantzun. Ez dago zertan nahitaez erantzun. Ez dago erantzun bakarra, eta denak entzutea merezi du, denen artean erantzun osoago bat aurkitzeko... edo galdera gehiago sortzeko. Ondo pasatuz, gainera.

Duela lau zapabost urte hasi zen elkarteak haurrentzako filosofia saioak antolatzen, euren gaitasuna baliatu dezaten: «Haurrak pentsalari ditugu jaiotzeaz. Ikasteko jarrera aktiboa erakusten dute, gauza berriak jakin, ikertu, deskubritu nahi dituzte». Hain zuzen ere, gizakiaren jakin-mina, gauzak zalantzan jartzea, «jarrera filosofikoa» alegia, jakintza guztien iturburua da.

Haurrek «berezkoa duten hori» sustatu nahi dute. Modu ludikoan, giro lasai eta atsegi-nean, elkarrizketa filosofikoa suspertu, enpatiaz eta errespetuz komunikatzeko modua baita. Pentsatuz, besteei entzunez, norberaren iritziak taldeari jakinaraziz...

Maddi Nazabal Jakinmin elkartearen kideak ez du zalantzarik batere haurrekiko saio horien egokitasunaz: «Askotan ematen du filosofia eta haurra

Gizakiak filosofia behar du galderak egiten dituenetik; are gehiago haurrak, galdera gehiago baititu. Gehiago eta aurreiritzirik gabeak; horregatik dio Jakinmin elkarteak filosofiak behar duela haurra, haien freskotasuna behar duelako. Azken urteotan hamaika filosofia tailer eta formakuntza saio egiten dituzte.

bateraezinak direla, eta justu kontrakoa da, haurrak erruz egiten ditu galderak, eta galdera horiei espazio bat emanaz gero, aukera bat emanez gero, sekulako filosofo txikiak ateratzen dira. Filosofiak freskotasuna behar du; bestela, askotan kontu akademiko erdi zaharkitu batekin lotzen dugu, inori inporta ez zaizkion gauzez arduratzen den zerbaitekin».

FILOSOFIAK BEHAR DU HAURRA

Haurrentzako filosofia pentsamendu kritikoa eta pertsona kritikoa osatzeko metodologia da. Hezkuntza sistema araututik kanpo, haurrentzako tailerrak eta irakasleentzako formakuntza saioak antolatzen dituzte, baita urtean behin haur filosofia jaialdi bat ere. «Galderatik abiatuta dialektika bat sortu behar da. Argudiaketa oinarrituriko eran-

Jakinmin elkartearen haur filosofiako tailerra.
JAKINMIN ELKARTEA



tzun baten eraikitze saiakera bat da filosofian egiten dena».

Jende guztiak egiten ditu galderak, eta haurrek gehiago; ezagutzeko, ikertzeko behar handiagoa du eta. Beraz, haurrak filosofia behar du, baina berdin gertatzen da alderantziz ere, filosofiak behar du haurra. «Haurrak galdera ematen dio filosofiari, eta freskotasun handia, begirada purua duelako, aurreiritzirik gabea, eta aurreiritzirik gabeko galderak dakartzkio filosofiari. Bere burua ezagutu eta munduan kokatu nahi duelako».

Ñabardura bat egin du Nazabalek: «Komeni da ikustea zer den filosofia egitea, ez ikastea, egitea baizik; denok daukagun zerbait da, eta haurrak aktibagoak dira, eta oraindik ez dituzte jaso aurreiritzi horiek guztiak. Bost urteko ume batek zenbat aldiz dio 'zergatik'? Bada, 'zergatik' horri tira egin da, pentsa zenbat galderatara irits daitekeen. Horregatik, gure aldarrikapena da filosofiak behar duela haurra».

HELBURUAK

Ofizialki 2018an sortu zen Jakinmin elkarte modura. Osatu zutenek haur filosofiako ikastaro batean egin zuten topo eta «norbera bakarra ez zela ikusita», elkartu eta abiatzea merezi zuela erabaki zuten, horrela «banaka baino indar gehixeago egingo genuelakoa», dio Nazabalek. Izan ere, ikastaro hartara bildu zirenek aurretik ere uste zuten zerbait egin behar zutela Euskal Herri mailan, ikusita haur filosofiak hemendik kanpo nolabaiteko lekua bazuela eta hemen ez. Beraz, interesa izanda, lanean zein bere kabuz ari zirenak elkartu ziren.

Lau helburu nagusi zituela sortu zen elkarteak: «Euskal He-

rri mailan filosofiaren hedapena sustatu eta nolabait erreferente bihurtzea; herrietan haurrekin filosofatzeko filosofia tailerrak antolatu eta egin daitekeela eta emaitzak badi-tuela erakustea; hedapenean laguntzeko eta helduak hurbiltzeko formakuntza antolatzea, eta etxetan eta ikastetxeetan ere egin daitekeela erakustea, eta azkenik, «erronkarik handiena beharbada», euskarazko materiala sortzea, beste hizkuntzatatik itzultzea edo material berria sortzea; izan ere, euskarazko saioetan beti erdarazko materialera jotzea ez zitzaigun egokiena iruditzen».

Haurrekin hasi ziren, baina gero eta heldu gehiago hurbildu zaizkie beraientzat ere planteamendu interesgarria dela esanez, ez formakuntza bezala, baizik eta haurrekin egiten diren saioak helduekin egiteko. Abian dituzte ikastaroak, adibidez Tabakaleran, eta Usurbilen ere hasteko moduan omen daude; beraz, helduak presentzia hartzen ari dira.

METODOLOGIA

Nazabalek azaldu du haur filosofiaren metodologia ez dutela eurek asmatu, baina Euskal Herrian sustatzeko asmoa dutela. «Zuk gai bat agertzen duzu pizgarri edo abiapuntu modura; elementu hori ipuin bat, antzerki obra bat, testu bat izan daiteke, edo film bat, eta hortik elkarriketara pasatzen gara. Elkarriketa hori borobilean egiten da, eta ikerketa komunitate bat sortzen da. Ez dakigu nora iritsiko garen, baina denok batera pentsatuko dugu ozenki, eta elkarriketa horren bitartez ateratzen dira ideiak, elkarriketak berak seinaltatzen du askotan nondik jo».

Elkarteko kide batek saioaren bideratzaile papera egiten



Haurrak jolasean, pentsalari. JAKINMIN ELKARTEA

Haurrek «berezkoa duten hori» sustatu nahi dute. Modu ludikoan, giro lasai eta atseguinean, elkarriketa filosofikoa suspertu, enpatiaz eta errespetuz komunikatzeko modua baita

«Ematen du filosofia eta haurra bateraezinak direla, eta justu kontrakoa da, haurrak erruz egiten dituen galderak, eta aukera bat emanez gero, sekulako filosofo txikiak ateratzen dira»

du, baina elkarriketaren nondik norakoa erabaki edo seinatatu gabe: «Guk ez dugu esaten halako ipuinarekin gai hau edo bestea ukituko dugula, gero elkarriketak beharbada ez du zuk uste zenuen bidea hartuko eta gure aurreikuspenak ez dira beteko, baina hori da aberasgarria azkenean, helburua ez da guk nahi dugunaz pentsatzea, baizik eta elkarriketa horretan daudenek dauzkaten interesetatik sortzen denaz».

Espero gabeko ertzak sumatzen dira askotan, eta orduan oso garrantzitsua da bideratzailearen papera. Saioen antolaketak lehenengo pizgarri bat eta gero elkarriketa komunitate bat eskaintzen ditu, eta hori bideratzeko, gidariaren presentzia. Helburua da gidariaren presentzia ahalik eta gutxien antzematea. Gidariaren helburuak, beraz, elkarriketa abian dagoela bermatzea izan behar du, argudioak eskatzea, galderak egitea, baina ez berak nahi duen bukarara iristea, irekitzen dituzten ateetara animatzea baizik.

Bitxia iruditzen zaio Nazabali sortutako egoera, batik bat umeak ez daudelako horretara ohituta: «Zu helduagoa zaren momentuan autoritate bezala ikusten zaituzte eta zuk zer pentsatzen duzun galdetuko dizute. Eta erantzunik ez ematea da garrantzitsua. Beraienaren balioa nabarmendu beharra dago, eta erantzun bat ez ondo ez gaizki egotea gustatzen zaie. Argudiatzearen ondorioz, askotan beraiek esaten dute: 'nik lehen hau esan dut baina orain besteak esan duenarekin igual aldatuko nuke'. Hori da gutxi gorabehera metodologiaren muina. Eta helduekin berdindina da, planteamendua berdina da eta gaien lanketa ere esango nuke hein handi batean berdina dela; hau da,



Zineforum saioa helduekin. JAKINMIN ELKARTEA



planteatzen ditugun gaiak azken batean berdinak direla; are gehiago, batzuetan egin izan dugu saio bera hurrekin eta haurren gurasoekin, eta hori sekulakoa da, zeren gurasoek esaten dute: 'Hau egiten duzue?'. Eta gero, etxean, seme-alabak joan zaizkiela halako gauzak esanez eta azkenean eurak ere gauza berdinaz aritu direla».

ELKARRIZKETA FILOSOFIKOA

Saioak berak irakasten die hurrei zer den elkarrizketa. Ez dela hitz egitea bakarrik, entzutea ere badela. «Azken batean ohituta ez gauden elkarrizketa mota da saio hauen helburua. Ez da hitz egin eta kito. Denbora behar da, ez dago presarik. Ez dago epaiketarik: honek hau esan du... Entzun behar da eta hori kostatzen zaigu bai helduei, bai... askotan igual helduei gehiago. Entzun eta aurpegi arrarorik jarri gabe, entzun;

eta, elkarrizketa onenetan, hori da filosofikoa, entzuten duzu, gero zuk zurea botako duzu besteari erantzunez eta beharbada beste zerbait gehituta. Beraz, guk irakastea baino gehiago nolabait dinamika beraiek horretara bultzatzea da. Guk erakustea baino gehiago elkarrizketan laguntzea da, eta igual ez dira erantzunak sortzen, baizik eta galdera gehiago, baina beraiek ikusteko denok batera lehenagotik pentsatzen zituzten gauzak edo ideiak bururatu zaiz-

«Bost urteko ume batek hainbeste aldiz dioen 'zergatik' horri tira eginda, pentsa zenbat galderatara irits daitekeen. Horregatik, gure aldarrikapena da filosofiak behar duela haurra»

Saioek pizgarri bat eta elkarrizketa komunitate bat eskaintzen dituzte, baita gidaria ere, hori bideratzeko. Helburua da gidariaren presentzia ahalik eta gutxien antzematea

Goian, haur filosofiako tailerra. Aldamenean, Maddi Nazabal Jakinmin elkarteko kidea. JAKINMIN ELKARTEA

kiela eta horrekin geratu, eta horrela gai bati ateratzen diotela askoz gehiago, eta hori nik uste dut aberasgarria dela, bai helduentzat, bai haurrentzat».

Beste argudio batzuk entzundakoan ikuspegi aldaketak izan daitezke, edo batek dioena beste batek dioen zerbait desberdinarekin bateragarria dela ikusi. «Hori oso polita da. Saldu dizkiguten edo ezarri dizkiguten mezu edo ideiak guk ikasi ditugu eta kito, eta filosofiak pixka bat honen kontra egiten du; horrelako elkarrizketa batean halako testuinguru batean igual esaten duzu: 'Nik beti pentsatu dut hau horrela dela eta beharbada ez da horrela'. Eta horretaz jabetzen direnean edo beraiek hori esatera ausartzen direnean... askotan ez da erraza, baina giro hori lortu behar da, lasaitasun hori, epaiketarik gabekoa, eta norbaitek esaten duenean: 'Hau pentsatuz etorri naiz saio honetara eta

orain justu kontrakoa pentsatzen dut'. Hori ikaragarria da. Edo zalantza sortu zaiola... edo azkenean desesperazioa: 'Dagoeneko ez dakit zer pentsatu'. Hori ikustean pentsatzen duzu elkarrizketa batekin lortu dela hori, eta zer beharra dagoen horretarako».

Haur filosofiako saioak oso ondo «saltzen» ari direla dio Nazabalek, baina batzuetan elkarrizketa pixka bat hutsal geratzen dela, edo okertzen dela; edonola ere, orduan nabaritu behar da gidariaren lana, ate berriak irekitzea ere badena, betiere helburu bat ipar: «Pentsatzea eta pentsatzen den horretaz kontziente izatea».

GERO ETA SAIO GEHIAGO

Ekimenak izan duen erantzun onaren erakusgarri dira hantemenka egiten dituzten saio ugariak. Saio horiek gauzatzeke, 12 edo 13 lagun daude; baikoitzak bere lana du, eta gero eta saio gehiago eskatzen diz-

OI(H)ARTZUN FILOSOFIKOAREN KUTIXIAK

«Ez da hitz egin eta kito. Denbora behar da, ez dago presarik. Ez dago epaiketarik: honek hau esan du... Entzun behar da eta hori kostatzen zaigu bai helduei, bai... askotan helduei gehiago»

Filosofia tailerretan parte hartzen duten taldeak egonkortu egin dira eta orain gogoa daukan jendea behar dute elkarteetan, formakuntza jaso eta saioak emateko

kietenez, ezin dira denetara iritsi. Alde batetik, oso ona dela dio Jakinmineko kideak, jendeak interesa badaukala esan nahi duelako, baina beste batetik, elkarteak jendea behar duela saioak emateko: «Taldeak egonkortu egin dira eta orain gogoa daukan jendea behar dugu elkarteetan, haur filosofian formakuntza jaso eta saioak emateko».

Orain arte batez ere liburutegiek eta elkarteek eskatutako saioak egin dituzte, hala nola Gasteizko Ignacio Aldekoak, Tabakalera eta Kutxa Kulturak, Usurbilen Oinherri Herri Hezitzaileak plataformak... *Online* saioak ere egin dituzte, esate baterako, Aupatuz-ekin, adimen gaitasun handia dutenen elkartearekin alegia.

Harrera ona izan dute eta, Nazabalen ustez, parte hartzen dutenak katigatu egin dira. Horren erakusgarri, egin dituzten zineforumak: «Kasu honetan, pizgarri gisa film bat ikusi eta abiapuntu hartuta, ondoren elkarrizketa filosofikoa; eta saio horiek ikaragarriko arrakasta izan dute». Hil honetarako, Tabakalerako Kutxa Kulturaren prest daude bai haurrentzako, bai helduentzako tailerrak, eta prest Jakinmin elkarteak ere, Nazabalek dioenez eurek ere oso gustura eginen baitute «plaza hori, elkarrizketa bat inongo presiorik gabe».

Oi(h)artzun Filosofikoa
elkarteak antolatutako
saioa eta, eskuinean,
«Hamaika kutixi filosofiko»
kutxa.
OI(H)ARTZUN FILOSOFIKOA | AS8

Jakinmin elkarteak sortzeko ideia mamitu zeneko ikastaro haietan lau oiartzuar zeuden, tartean Maddi Nazabal, aurretik ere beren herrian haur filosofiko saio batzuk antolatu zituztenak. Aldi bertsuan sortu ziren Jakinmin eta elkarte horren barruan dagoen Oi(h)artzun Filosofikoa.

«Haur filosofia oinarri izanda, herriko sortzaileekin saioak egiten animatu ginen», azaldu du Nazabalek, «aipatu dugun metodologiaren oinarri den pizgarria hainbat sortzailek aurkeztuko zutena izan zedin». Sortzailea ipuin kontalaria bada, ipuina da pizgarria; ilustratzailea denean, ilustrazioa... «uztarketa bat, haur filosofia alde batetik eta herriko sortzailea beste batetik. Dagoeneko bosgarren ikasturtea dugu hau». Orain Errenterian ere berdintsu egitea pentsatu omen dute.

«Sortzaileentzat ere polita da ikustea nola bultza dezaketen hausnarketa beren sorkuntza horiek eta haurrentzat polita da saioak ematen dituzten horiek, beti gu izan ordez, herriko sortzaileak izatea, bat ipuina kontatuz, bestea musikarekin... Horrela oreka sortzen da, denentzat aberasgarria dena». Herrian dinamika bat sortzea lortu zuten eta iaz «Hamaika Kutixi Filosofiko» argitaratu zuten. Pandemia zela eta ezin zuten saiorik egin eta zerbait egin ote zitekeen buruari hainbat buelta eman ostean, beharbada materiala sortzeko aukera izan zitekeela bururatu zitzairen. Pentsatu eta gauzatzen hasi: ipuinak, poemak, antzerki piezak, ilustrazioak... eta galderak, saioetan erabilgarri izan zitezen. Aurretik saioetan parte hartutako zenbait sortzaileekin zituzten harremanetatik tiraka, 22 lagunengana parte-hartzea lortu zuten, erdiak ilustrazioak

eta beste erdiak testuak egin zituztenak. Gai baten gaineko testu ilustratu bakoitzari galdera bat dagokio; beraz, 11 gai lantzeko materiala da. «Gure txikitasunetik material txukun bat behintzat sortu dugu, zenbait puntutan erreferente izan daitekeena. Gure hondar aletxoa da».

Finantziazioari dagokionez, Oiartzungo Udalari aurkeztu zioten proiektua, berak finantzatzen baititu filosofia saioak, eta sortzaileei ordaintzeko ardura hartu zuen. Kutixi kutxa argitaratzeko materialak, inprenta eta horrelako gastuei aurre egiteko, berriz, crowdfunding kanpaina bat abiatu zuten. Ez zekiten zenbateko oihartzuna edo harrera izango zuen lanak, eta argitaratu aurretik erosle batzuk izango zituztela ziurtatzeko abiatu zuten kanpaina.

Aurreikuspen guztiak gaindituta, 300 ale lotu zituzten eta 500 aleko tirada ateratzea erabaki zuten. 500 aleak saldu zituzten «eta horrek ikaragarriko animoa eman zigun, ikusita zer txikitasunetatik hasi den proiektua». Bigarren tirada bat atera dute. «Filosofia edo haur filosofia egiteko materiala da, baina bestela ere, azken batean, ipuin bilduma bat da, ilustrazioekin eta galderekin». Izan ere, etxean irakurtzeko ere balio du, bai helduek, bai haurrek.

«Kuadrillan ez dakit, baina ipuin bat irakurri eta galdera batzuen inguruan nik uste dut bat edo beste dibertituko liratekeela, azken batean denontzat interesgarriak izan daitezkeen galderak direlako, denok ukitzen gaituztenak behintzat».


Lan hori Internet bidez eska daiteke. Bestalde, elkarteak web orria abian jartzen ari da, informazio guztia eskainiko duena, eta luze gabe ikusgai izango dela uste dute.





Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA:



Hi,
URGULLGO
JOSU
KRISTO!

ZER HABIL
MOTXILA
HORREKIN?




ASTIGARRAGARA
NOAK

HEMEN
EZ ZAGOK
BIZITZERIK



SANTIAGO
MENDIN
JARRIKO
NAUK

HAN
MERKEAGOA
DUK METRO
KARRATUA



«Espero dut egunen batean euskaraz bizitzea normala izatea»

Plazera da Fernando Etxeberria Mariezkurrenarekin (Ezkurra, 1942) aritzea. Jakintza eta esperientzia handikoa da, irakaskuntzan, herrigintzaren jardunean, asko bizitakoa eta asko emandakoa. Domingotar izandakoa, Bergaran hasi zen irakasle eta joan den astean 50. urteurrena ospatu zuen Aranzadi Ikastolaren lehen zuzendaria izan zen. Herritik sortu eta herriaren taupadarekin hazi da ikastola, baina baita domingotarren bultzadarekin ere. Errege Seminarioko errektore eta han kokatu zen UNE-Deko idazkari izan zen. Urteetan kartzelaz kartzela euskal presoek ikasketak laguntzen, ehunka maisu eta andereñoen lanpostuak legeztatzen jardun du, eta horretaz guztiaz aritu gara berarekin.

Domingotarra izan zinen, eta zure lehen irakasle lana Bergaran hasi zen.

Bai, Salamancan amaitu nituen ikasketak eta Bergarako Lan Institutura bidali ninduten irakasle.

Bergarako Errege Seminarioaren eraikinak mendeetako historia luze eta merituzkoa du. Zein izan zen zuk ezagutu zenuen eraikin honen erabileraren azken etapa?

1880an, Estatuaren jabetzakoa zen eta hutsik zegoen eraikina Gasteizko Gotzaindegia laga zitzaion domingotar komunitate batek irakaskuntza ertaineko eskolak eta beste katedra batzuk eman zitzaizkion, Estatuak beste erabilera batzuetarako erabiltzea egoki ikusten ez zuten bitartean.



FERNANDO ETXEBERRIA

ARANZADI IKASTOLAREN LEHEN ZUZENDARIA

Ezkurrako seme hau memoria kondentsatua, ondare nazionala, altxorra da. Bergarako ikastolaren sorreran, ehunka andereño eta maisuren lanpostuen alde egindako ekarpena errepasatu dugu.

Mikel Zubimendi Berastegi

Eta domingotarrak eraikinean finkatu ziren.

Lehen etapan Bigarren Hezkuntza mantendu zen (1880-1930), eta bigarren etapan Industria modalitateko Lan Batxilergoko Institutu izan zen (1959-1972). Bi etapetan barnetegia mantendu zuen.

Lan Institutuko errektore izendatu zintuzten, eta 1971-72 ikasurtearen amaieran itxi zenuen ateak. Zergatik?

1971n, Madrilgo Gobernuak herri irakaskuntza ertaineko ikastetxe publiko bat sortzeko hartutako erabakiaren ondoren, domingotarrek ikastetxe teknikoa itxi eta, Seminarioko errektore gisa, eraikinaren gerorari eta irtenbide posibleei buruzko azterlan bat egiteaz arduratu nintzen. Proposatu nuen lehenengo gauza eraikina herriarentzat izan behar zela izan zen: eraikinaren zati bat gizarte ekintzarako eta beste bat ikastolarako eta Haur Santuaren ikastetxerako –legeztatua zegoen eta OHOk eskolak ematen zituen–. Herriko elkarte adierazgarrienei aurkeztu nien, Bergarako Kultur Ekintzari (Promoción Cultural Vergaresa) eta Alkartu-Nairi.

Zein izan zen domingotarren azterketa eta proiektua?

Azterketaren arabera, ikastetxe ofizial berri hori nahikoa zen Bergarako ikasleentzat, eta are hobeto publikoa, mistoa eta doakoa bazen. Proiektuan planteatzen zen, Errege Seminarioaren eraikina hutsik eta erabilgarri geratuz gero, herriaren zeuden eta bitarteko eta eraikin prekarioak zituzten irabazi asmorik gabeko behar sozial eta kulturei arreta eskaintzea.

Zein ziren hartzaile posibleak?

Hamalau elkarte: Aranzadi ikastola, Gureak tailerra, Juan Mari Errastik eta Juan Carlos Barrenak zuzendutako Elbarri-Lan tailerra urritu fisikoen-tzat, Jubilatuen Kluba, Kabinete Psikopedagogikoa, Gazte Kluba, Alargunen Kluba, Zientzia Museoa, Ikusmena Berreskuratzeko Zentroa, Aspace, Odol Emaileak, Udal Liburutegia, Haurtzaindegia eta, gero, UNED. Esan behar da, bestalde, domingotarren parte-hartzea ezinbestekoa izan zela. Izan ere, haiek irakaskuntza eskaintzeko emandako eraikina erabiltzeari uzten bazioten, pentsatzekoa zen Estatuaren eskuetara itzultzea.

Esan didazunez, proiektua lehenengo aurkeztu zenuen Bergarako Kultur Ekintzan.

Bai. Elkarte hau 1967an jaio zen herriaren hezkuntza eta kultura arloan zeuden beharrez ugariei erantzuteko, eta egia esan, behar batzuk arindu zituzten.

Eta zein izan zen harrera lehen harreman horretan?

Etsigarria izan zen, gehienek, atsekabe historikoarekin, eraikina unibertsitateko fakultate posible baterako gordetzea nahiago zutelako, zientzia kimikoen balizko fakultate baterako. Eta errealitatea zen oraindik ez zegoela Euskal Herriko Unibertsitaterik, eta Euskadin Zuzenbide Fakultatea baino ez zegoela, Valladolideko Unibertsitatearen mende.

Bigarren urratsa Alkartu-Nairi aurkezte izan zen.

Elkarte hori 1970ean sortu zen, eta 29 elkarte eta ermandadek osatzen zuten (kulturelak, gastronomikoak, kiroleko-

ak, jolaserakoak...). Asko eman zion Bergarari. Ekintza bateratu eta solidarioa egiten saiatzen zen, herriaren behar asistentzial eta sozialei aurre egiteko. Eta guztiak, aho batez, proiektuarekin identifikatuta sentitu ziren.

Noiz joan zinen udaletxera?

Hirugarren urrats honetan, Alkartu-Naiko kideek lagunduta joan nintzen. Luis Lascurain alkate frankista haserre zegoen lehenago kontsultatua izan ez zelako, eta zeharo iraingarri, hizkera garratza erabiliz, domingotarrek herritik martxa egitea eskatu zuen. Guk Bergaratik alde egitea eskatu zuen, deserriratzea, horixe planteatzera iritsi zen. Gogoan dut bertan zeuden bi kidek, Jose Luis Elkorok eta Juanjo Arrietak, aurre egin ziotela eta aurpegira bota ziotela herri osoaren onerako aurkeztutako proiektu baten aurrean izan zuen jarrera lotsagarria. Hurrengo egunean Errege Seminarioan aurkeztu zen barkamena eskatuz eta udal eskoletarako gutxienez oso premiazkoak ziren bi gela eskatuz. Egia esan, eraikina Udalak kontrolatzea nahi zuen. Hala ere, ikastolekiko zuen begikotasun politiko eskasa eza gututa, nik erantzun nion edozer erabaki aurretik Donostiako Gotzaindegia eta nire domingotar nagusiaren adostasuna behar nuela. Oso argi neukan alkateak nahi zuena ez nuela inolaz ere onartuko.

Egoera horrekin, zein izan ziren hurrengo urratsak?

Elkarrizketa bat izan nuen Jacinto Argaya Gipuzkoako ordeko gotzainarekin, nafarrak ginen biak, eta nire domingotar nagusiarekin, eta bata eta

bestearen babesa erabatekoa izan zen gure proiektua aurrera eramateko.

Joan den astean Aranzadi Ikastolak berrogeita hamargarren urteurrena ospatu du. Hitz egingo didazu bere jatorriaz?


Diktadura frankistaren testuinguru hartan euskara ofizialki debekatua, jazarria eta irakaskuntzatik baztertua zegoen. Ikastolako edozein proiektu lege kanpoko zen eta klandestinitatean bakarrik zen posible.

Ikastola Bergaran, beste leku batzuetan bezala, klandestinitatean jaio zen?

1933an bazegoen eskola txiki bat, Ariznoako Euzko-Ikastola, Maria Ojanguren andereño aitzindariaren inguruan. Esperimentzia horrek iraun zuen Bergara frankistek 1936an hartu zuten arte, eta Maria bi urtez erbestera bidali zuten arte. Gero, 60ko hamarkadan, frankismo betean, pertsona talde batek, adore eta arriskuarekin, ikastola baten antzeko zerbait sustatu zuen. Lehenik, bi ikastetxe pribaturen inguruan (San Martin Agirre eta Koldo Elizalde), Parrokiaren laguntzarekin, euskaraz irakasten zuten. Ondoren, bi ikastetxe horiek bat egin zuten Haur Santuaren ikastetxe elebidunean. Azkenik, Errege Seminarioan amaitu eta 1975ean legeztatu zen, Aranzadi Ikastola izenarekin.

Atzera eginez, kontu ieza dazazu nolakoa izan zen Errege Seminarioan sartu izana.

Ikastolako zenbait gurasorekin adiskidetasuna nuenez (Vinicio Berasategi eta Martin Arana, besteak beste), Haur Santuaren ikastetxeko tituluarekin, Jose Amilibiarekin,



«Alkate frankista haserre zegoen Errege Seminarioko proiektuaz kontsultatua izan ez zelako, eta zeharo iraingarri, domingotarrek herritik martxa egitea eskatu zuen. Gu Bergaratik bidaltzea, deserriratzea, horixe planteatzera iristi zen»

harremanetan jarri ginenean, eraikina prestatuta eskaini genien, beharrezko ikasgelekin. Baina bazen lege arazo bat, domingotarrek, eraikinaren gozamendunak izanik, eskolako eginkizunak zituzten; ezin ziren desagertu, eraikina nolabait erabiltzen jarraitu ahal izateko. Legezketasun hori betetzeko, familiako gurasoek ikastolako zuzendari izendatu ninduten, behin-behinean, eta beste bi domingotar irakasle gisa sartu ziren: Jesus Zamora, ikastolan ingelesezko eskolak ematen zituena, eta Jacinto Sanchez, eskulanak eman eta aldi berean mantentze lanez arduratzen zena. Hitzeman genuen, aurrerago, ikastolak normaltasunez funtzionatuko zuenean, domingotarrek bidea

libre utziko zutela, ikasleen gurasoek ikastolarentzat erabakirik egokiena har zezaten.

Frankismoaren urte horietan, nola bizi izan zenuen ezkutuko ikastola baten egoera?

Hasiera batean, gure ikastolak bi abantaila izan zituen: bata, zuzendaria fraidea zela, eta, bestea, hasierako titulartasuna Haur Santuaren ikastetxearena zela, eta erregimenak Jose Amilibia titularra errespetatzen zuela. Izan ere, funtzionarioen jarrerak (Hezkuntzako ikuskatzaileak eta idazkariak), euskaldunen aurkakoak eta ikastolekiko antipatia nabarmena izanagatik ere, gure lanean jarraitzeko bidea ematen zigun askotan. Adibidez, ikuskatzaileak etortzen ziren, eta



Argazkiak: Iñigo URIZ | FOKU

zuzendaria fraidea zela jakitean, beste jarrera bat hartzen zuten. Dirulaguntzak jaso zituen lehen ikastoletako bat izango ginen; hala aitortu zidan behin idazkariak, lehen ikastola izan ginela. Nik uste titularra Jose Amilibia zelako. Haur Santuaren ikastetxe elebidunerako eskatzen genituen, baina titulartasuna titulartasun, bazekiten benetan ikastolarentzat zela.

Orduan, ikastola bezala legeztatzea prozesu geldoa izan zen? 1972an, behin-behinean, "Aranzadi" izena erabiltzen genuen, eta titularrak domingotarrak, Gurasoen Elkartea eta Jose Amilibia ziren. Hurrengo urtean behin-behineko legeztatzea jaso genuen eta 1975eko

uztailaren 10ean behin beti-koa. Une horretan, Maria Victoria Arizmendiren esku utzi nuen ardura, eta unibertsitateko Filosofia ikasketak amaitzeko Dominikar Errepublikara jo nuen.

Zu bertan ez zinela, Bergaran UNED sortu zen, eta itzultzean ikastetxeko idazkari izendatu zintuzten.

Nik egitura akademiko publiko bat aurkitu nuen, unibertsitateko karrera askotarikoak arautu gabeko edo unibertsitateko beste karrera batzuekin uztartzen zituena. Horrela, Euskal Herriko historia eta kulturarekin, berrikuntza pedagogikoarekin edo master baten mailako gai oso espezializatuekin (gerontologia, kontsumoa, praktika juridikoa, liburutegia eta beste batzuk) lotutako jarduerak eta argitalpenak sortu ziren. Nik UNEDen eta Eskoriatzako Irakasle Eskolan partekatzen nuen nire irakaskuntza, eta bi erakundeen artean unibertsitateko titulurik ez zuten euskarazko andereño eta maisuei irakasle ikasketak eskaintzeko aukera hausnartzen joan zen. Plangintza bat proiektatu nuen: titulua Irakasle Eskolak eman zezakeen –UNEDek ezin zuen, karrera guztiak bost urtekoak zirelako–, baina UNEDen urrutiko irakaskuntza metodoa erabil zitekeen.

Eta testuinguru horretan, ikastolen bizitzarako plan aitzindari eta ezinbesteko batek forma hartu zuen, bertako irakasleen titulazio ofizial gisa.

Dena legeztatu nahi zen une hartan, ikastolek titulurik gabeko irakasle asko zituzten, urteetako esperientzia zutenak. Bestalde, adin eta lan egoera kontuan hartuta, ezin zu-

«*Hasiera batean, gure ikastolak bi abantaila izan zituen: bata, zuzendaria fraidea zela, eta, bestea, hasierako titulartasuna Haur Santuaren ikastetxearena zela*»

«*Ikastolek titulurik gabeko irakasle asko zituzten, urteetako esperientzia zutenak. Bestalde, adin eta lan egoera kontuan hartuta, ezin zuten ikastaro arautuetara joan*»

«*UNEDen, 800 bat andereño eta ikastetxe ofizialetako euskara irakasle baino gehiagorengana iritsiko ginen, beren egoera akademikoa legeztatu eta lanpostuetan jarraitu ahal izan zutenak*»



ten ikastaro arautuetara joan. Ikastolen eskari orokorra ikusita, Euskal Herriko Unibertsitateko Errektoretzak ez zuen irtenbiderik ematen eta ezarritako zegoen horretan babesten zen. Egoera horretan, Bergarako UNEDetik Eskoriatzako Irakasle Eskolako titulua bideratzeko UNEDen dispositibo guztia antolatzeko aprobetxatu nahi izan genuen. Eta orduko Euskal Herriko Kontseilu Nagusiaren (artearen ez zen Eusko Jaurlaritzaren existentzia) hezikuntza titularra zen Carlos Santamariarekin harremanetan jarri eta hark onartu eta berretsi egin zuen.

Eta nola lortu zuten irakasle titulua batxilergorik gabeko irakasle haiek? 25 urteko sarbide azterketa eginda, eta gehienek pasatu zuten. Izena eman zuten lehenengoek erraz gainditu zituzten probak: gaurkotasuneko gai bat idaztea (adibidez krisi energetikoa, jaiotza kontrola...), euskarazko testu bat gaztelaniara itzultzea eta test psikotekniko bat, erraz.

Eta zu koordinatzailea zinen erakunde horretan, zein zen antolaketa zehatza? Bi talde ezarri ziren: bata astean bi egun arratsaldean eta bestea ostiral arratsaldean eta larunbat goizean, urrutikoei Bergaran gaua pasatzeko aukera ematen ziena. Azken ikasturteetan zuzenean matrikulatu ziren Eskoriatzako Irakasle Eskolan, eta Iruñean ere eman ziren eskolak.

Nolakoa izan zen pertsona helduekin eta euskararen aldeko urteetako borrokarekin izandako esperientzia hura? Balorazio orokor batean esango dizut esperientzia berri-

tzailea eta oso parte-hartzailea izan zela. Lehenik eta behin, edozein berrikuntza pedagogikotara irekitako pertsonak ziren, etengabeko bilaketara ohituta baitzeuden, eta gero, eskolak intentsitatez bizitzen ziren, haietan ahalegin handiz eta batzuetan baliabiderik gabe sortutako praktika pedagogikoak eztabaidatzen baitziren.

Eta zenbat lagunengana iritsi zen plan hau?

Nik kalkulatu dut, gutxi gorabehera, UNEDen 800 bat andereño eta ikastetxe ofizialetako euskara irakasle baino gehiagorengana iritsiko ginela, beren egoera akademikoa legeztatu eta lanpostuetan jarraitu ahal izan zutenak. Izan ere, arriskuan zeuden lanpostuak, kontu egin Euskadin urtero 200 maisu-maistra baino gehiago titulatu zirela, eta lege lehentasuna izango lukete lanpostu horiek betetzeko. Gainera, horietako asko euskararen aldeko borrokaren aitzindariak izan ziren beren lekuetan. Nik oroitzapen berezia daukat irakasle titulua lortu zuten Bergarako Aranzadi Ikastolako andereñoentzat: Lupe Olabarria, Karmentxu Arraigo, Izaskun Jimeno, Blanca Narbaiza, Bego Zubizarreta, Marije Gurrutxaga, Edurne Barrutia, Maite Guridi, Arantxa Fernandez de Arroyabe, Carmele Gisasola, Arantxa Arrieta eta baita Inazio Arregi maisua ere.

Fernando, zure denboragatik eskerrak ematearekin batera, erretiro aktiboa izan dezazun opa dizut. Amaitzeko, etorkizunerako desio bat esadazu. Espero dut egunen batean euskaraz bizitzea normala izatea.



Itziar Elizondo - @itziarelizondo

Harremanak Elkarte

Ekoizua

Lan kontuak direla-eta Andaluzian egotea ego-
kitu zait azken bero boladan. Bertan udara gero
eta goizago da-
tor, eta aurren
udaberriak nekez
izan du aukera
burua ateratzeko. Aldaketa
klimatikoak eraginda, tele-
sail distopikoen lehenengo
hari narratiboetan sartuak
gara, eta errealitatea fikzio-
ari goititzeko bidean dago.

43 °C graduak gela zehar-
katzen saiatzen dira per-
tsianen zirrikituetatik. Ba-
rruan itzal lubaki bat eraiki
arren, bunker ilun honeta-
tik antzeman daiteke kan-
poko sua. Aire egokituen
bidez merkaturatu dute
modu bat errealitate gordin
hori ez sentitzeko, baina
teknologiarik perfektuenak
ezin du eragotzi ekoantsie-
tateak mentalki jazartzea.
Baliteke hori kontzeptu po-
toloegia izatea une hone-
tan sentitzen dudana horre-
tarako, baina inoiz ez
bezala sutzar klimatiko ho-
nekin jota nago. Ez da soilik
gorputza indarrik gabe sen-
titzea, hankak burdinazko
kateekin arrastaka eraman
beharko banitu bezala. Zer-
bait mentalagoa da. Baso-
kada ur bata bestearen
atzetik edateak ez du inola
ere buruko egarria asetzen.

**Ekoizu ataka honetatik ir-
teteko gelako pantaila
erraldoian Islandiako pai-
saia baten bideo bat bila-
tu eta «loop» gisa utzi
dut.** Fantasiari tiraka, irudi
horiek errealitate birtuala-

ren itxura hartzen dute. Siglufjörðurren barrena hotz arti-
koaren zaplaztekoek oinezkoen aurpegiak estutzen dituzte.

«Zein ondo zaudeten he-
men», esan diot “Ófærð” te-
lesaileko poliziari. «Ez daki-
zu zer den sutan erre eta
kiskaltzea hegoaldeko he-
rrialdeetan».

«Ez pentsa –erantzun dit
Andri Ólafsson bizardu-
nak–. Hemen hotza ez da
garai batekoa. Hegoaldetu
egin gara eta askok gustuko
dute hori ere».

**Hinrika Kristjánsdóttir po-
lizia eszenan sartu dene-
an izerditan esnatu naiz.**

Pantaila, elur malutaz bete-
rik, islandieraren soinu za-
harrak botatzen ari da Kor-
dobako “caló”-aren kontra.
Ordubetea gaua etorriko
da eta auskalo amesgaizto
klimatikoaren tankerak
hartuko dituen: ia aierik
ez, ingurugiro geldoa, ia so-
lidoa, insomnia egunaren
bokalea izateraino.

Bat-batean mendebal
haizea etorri zaigu dan-
tzan. Leihoak ireki, haizea
aurpegian dastatu, eta irri-
barre bat bota diogu terra-
zako bugainbileari. Pixka-
naka-pixkanaka jendez
bete da kalea. Gu ere atera-
ko gara arnasa hartzera.
Atera aurretik, ordenagai-
lua itzali eta hauxe idatzi
dut hozkailuan itsatsita da-
goen paperean: «Gaur li-
bratu gara. Bihar bai ala bai
‘googleatu’ ekodepresioa,
ekoamorrua, ingurumen
kolapsoarekiko beldur kro-
nikoa...’ •



«Inoiz ez bezala sutzar klimatiko honekin jota nago». Juan Carlos RUIZ | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

Arma... tiro... non?

Nahiz eta hau esatea erabat korrontearen kontra gidatzea den –eta zeresanik ez, orain– uste dut gehiegi kopiatu dugula eta kopiatzen jarraitzen dugula AEBetatik; hainbeste, non estatuen batura hori eredutzat hartzen noiz hasi ginen ahaztu zaigun. Esaterako, erabat xelebrea iruditu zait betidanik han autoetan matrikula pertsonalizatuak jartzeko duten ohitura hori; eta are xelebreagoa oraindik askorengan horrek pizten duen lilura: «Hemen ezin da halakorik egin... eta han bai!». Eta horren atzetik etortzen dira honelako esaldi borobil eta ustez orojakileak: «Han dena da aske», «Jarritako edozein helburu lor daiteke» eta horrelako *perogrulladak*.

Azken finean, foku, iragarki eta zeluloidetik apur bat urrunduta berehala antzematen da AEBak direla merkatuaren logika gordinaren adibide basatiena, poliki baino azkarrago munduko ia bazter guztietan gupidagabeki zabaltzen eta areagotzen dabilena, aseezina baita.

Hamarkadaz hamarkada handik zabaltzen den marketinak, etengabeak eta eraginkorrak, estaltzen du estatu idiliko horretan osasun publikoa ez dagoela bermatuta, ez dela uniberttsala, eta, ondorioz, gutxien dutenek ez dutela medikuarenera joateko eskubiderik. Aldiz, ordaintzeko aukera daukanak eros ditzake nahi beste arma edozein momentutan bururatzen zaionaren kontra tiroka egiteko, baina erasoja jasan duena, dirurik ez badu, ez du inork osatuko. Erasotzailea ez dadila kezkatu, beti esan dezake defendatzeko eskubide osoa daukala, eta askok sinistu eta bere alde egingo dute. Edo akaso han bizi duten gurgil zoro eta eskubide sasi-askatzaile horretan ausartuko lirateke herritar guzti-guztiei armak doan banatzen? Ziur ezetz; han ezer ez da doan.

Hain zuzen ere, beste guztia estaltzen diguten topikoetatik harago miseria latza bizi dute neonez eta armaz jositako itsasoz bestaldeko eremu erraldoi horretan; miseria eta baita ezjakintasun latza ere. Eta

ezjakintasunak kezkatzen nau asko, horrek erabat pobretzen gaituelako zentzu guztietan epe motzean, er-tainean, baita luzean ere.

Ezjakintasuna da, bai, gizartearen gaixotasun larrienetakoa; larrienetakoa diot, badelako hori baino larriagoa denik: ezjakina izan nahi izatea, alajaina. Hala bizi gara: gertaerak kontrastatu eta ezbaian jartzeko ehunka leihatila eta aukera ditugula, handienari zein bakarrari (hori ez da kontrastatzea) bakarrik egiten diogu kasu.

Eta hala gabiltza orain ere. Munduko Gerra (agian) ez, baina jende askorentzat Munduan dagoen Gerra bakarra –Ukrainakoa– irmo salatuz biktimen alde hitz eginez eta aldi berean arma gehiago bidaltzeko eskatzen, horren atzean dauden dozenaka interesei muzin eginez. Eta gurera etorrita, oroitzen gara gure herrian zenbat arma enpresa dauden, zerk bultzatzen dituen horiek guztiak, zer duten helburu eta zein errotuta dauden gure artean?

Foku, iragarki eta zeluloidetik apur bat urrunduta, berehala antzematen da AEBak direla merkatuaren logika gordinaren adibide basatiena; munduko ia bazter guztietan gupidagabeki zabaltzen ari dena

Bada, orain gutxi errepidean egin nuen topo batekin; ez, espresuki Ukrainaren kontrako erasoja hasi zeneko tanketa konboi erraldoi horietako batekin, ez. Horren atzean badaude beste asko. Lehen, aspalditxo, gurean autoek tarteka eramaten zituzten itsatsita arranoen irudiak, nuklearren kontrakoak, izar beltz edo gorriak, kasu lotsagarri samar batzuetan Ibizako modako diskotekenak, eta gerora ardi zein basurdeak. Bazirudien moda hori etenda zegoela, baina aste honetan bertan parean aurkitu dut arma enpresa baten izena atzean (ez alboan, korporatibo gisa; hortaz, ez zen laneko kotxea) zeraman auto bat. Zer izango da hurrena? •

Caf-Elhuyar sarrietan, dibulgazio artikulurokorren sailean, bere lana goratu dute epaileek, “Emakumeen libidoren heriotza: epaiketa-garaia” izeneko artikuluatik. Iker-tzaileak normalean itzaletan egoten den gaia jarri du mahai gainean: emakumeen sexu desioa. Eta galdera baten bueltan osatu du artikulua: antisorgailu hormonalek emakumeen libidoa apaldu egiten ote dute? Apenas kezka zientifikorik eta, ondorioz, ikerketarik pizten ez duen galdera izanda, oraindik zaila da erantzun zorrotzak lortzea.

Emakumearen libidoa lehen lerrora ekartzea, tamalez, ez da oso ohikoa. Nolatan aukeratu zenuen gai hori dibulgazio artikulua idazteko? Lagunarteko elkarrizketa batean sortu zen. Hormona bidezko antisorgailuen inguruan hitz egiten hasi ginen eta libidoaren gaia atera zen. Lehen aldia zen lagunartean libidoaren gaia antisorgailuen ikuspuntutik aipatzen genuena eta bitxia iruditu zitzaidan zenbat esperientzia desberdin zeuden hain lagin txikian. Horrek nire interesa piztu zuen eta informazioa bilatzen hasi nintzen.

Artikuluaren egitura ere berezia da. Epaiketa bat irudikatzen duzu. Artikuluak bilatzen hasi nintzenean, ni nolabait bukaerako emaitza baten bila nindotan; ea zein lotura dagoen hormona bidezko antisorgailuen eta libidoaren artean, pentsatuz lotura hori dagoneko frogatua zegoela. Eta guztiz kontrakoa topatu nuen,



emaitza kontrajarriak daudenez, ez baitago frogatua. Horregatik bururatu zitzaidan epaiketaren formatu hori erabiltzea, aldeko eta kontrako argudioak ematea ahalbidetzen zidalako. Horrez gain, epaiketaren formatuak hasierako kasuaren irakurketa bat eskatzen du eta nire ustez erosoagoa da irakurlearentzat istorio batekin hastea datu biokimikoekin hastea baino.

Ados. Zein da kasua? Hormona bidezko antisorgailuak hartzen hasi den neska baten kasua da. Badaki albo efektu asko izan ditzakeela. Hasten da hartzen eta ez ditu asko nabaritzen, baina gertatzen zaiona da ez duela inolako sexu grinarik. Ez du uleretzen eta kezkatzen hasten da. Interneten topatzen du pilulen errua izan daitekeela eta pilulen eskuorrian ere gauza bera topatzen du. Galdera da ea ez zer zentzu daukan kezka gabeko sexu harremanak izateko hartzen duen horrek sexu grina ezabatzeari.

Hormona bidezko pilulen inguruan badago informazio edo uste orokor bat jendartean. Baina libidoari buruzkorik ez da iritsi. Sexua beti izan da gai ezkutua. Azken urteotan hezkuntzaren mundutik eta gizarte mailan normalizatzeko ahalegin bat egiten ari den arren, sexu grina nahikoa tabua den gaia da, are gehiago arazoak daudenean. Gainera, oso ikerketa gutxi daude horren inguruan, oso zaila da deskribatzen.

Oso gai konplexua da eta horregatik interesgarria iruditzen zitzaidan horri buruz idaztea.

«Zer zentzu dauka kezka gabeko sexu harremanak izateko hartzen diren pilulek sexu grina ezabatzea?»

Sexualitatea orokorrean gai tabua da eta zeresanik ez emakumeen plazera, ezta?

Bai, horrela da. Gai hori lantzeak aukera ematen zidan artikuluaaren amaieran horren inguruko aldarrikapen bat egiteko; zein garrantzitsua den emakumeen sexu desio edo osasunari buruz hitz egitea, medikuarekin horri buruz lasai hitz egitea eta garrantzia ematea.

Behin kasua agertuta, jarrai dezagun salatuarekin. Zer dira aho bidezko antisorgailuak?

Hormona bidezko antisorgailuek obulutegia lokartu egiten dute. Obulutegiak aktibatzen dituen hormonak blokeatu egiten dituzte eta, ondorioz, ez da obulurik isurtzen. Obulurik ez badago, ernalketa ezin da gertatu. Aldi berean, muki mintza ere loditu egiten da eta espermatozoideak ezin dira heldu. Beraz, ernalketaren bi partaideak blokeatu egiten dira.

Libidoarekin zera gertatzen da: libidoa zeharka testosteronarekin lotuta dago. Ikusi da dopaminaren igoerak eragina duela libidoan eta dopaminaren igoera testosteronarekin lotuta dago. Hormona bidezko antisorgailuek testosterona murrizten dute eta logikoena da pentsatzea testosterona murrizten bada, libidoa murriztuko dela. Eta hor dago artikuluaaren koska, ez dela beti hori gertatzen edo, behintzat, ez dela beti hori ikusten.

Erantzun bakarra topatuko zenuelakoan abiatu zinen bidean eta erantzun bat baino gehiago topatu dituzu, ezta?

Bai. Zorionez urtarilaren amaieran errebisio sakon bat argitaratu zen eta banuen non irakurri ikerketa desberdinen

laburpen bat. Baina arraroa iruditu zitzaidan hain emaitza kontrajarriak aurkitzea eta hain ikerketa edo artikulugutxi izatea gaiaren inguruan.

Ez zaie emakume denei gertatzen, pertsona bakoitza bat eta bakarra garelako. Hori diozu artikuluan.

Finean hormonek gure gorputzean duten eragina desberdina izan daiteke eta aldaketa txiki batek modu desberdinean eragin dezake bakoitzarengan. Hori da artikuluetan ematen duten arrazoi probableena.

Testosterona jaitsiera frogatuta dago, hori gertatu egiten da, baina ikerketek esaten dute emakume bakoitzak muga puntu desberdin batean izan dezakeela. Jaitsiera horrek muga gainditzen duenean, emakume horrek nabaritu dezake libidoaren jaitsiera.

Beste ondorio bat sexu grina- ren inguruko ikerketak falta direla da.

Sexu desioa ikertzea oso konplexua da. Artikuluan azaltzen dudana bezala, faktore askoren mende dago, ez bakarrik hormonak: estres maila, antsietatea, nekea... sexu grinaren azterketa faktore bakarrera mugatzea zaila da. Artikuluetan aldarrikatzen da galdetegiaren garapenean gehiago sakontzeko beharra eta analisi sakonago bat egiteko galdera edo metodo egokienak zein izan daitezkeen ikertzeko premia. Azkenean, oso subjektiboa den sentimendu bat da.

Libidoari buruz modu irekia- goan hitz egitea eta medikua- rekin askeago eta sakonago aritzeko aukera ere aldarri- katzen duzu artikuluan.

Sexu ongizateaz edo sexu osasunaz ari gara. Medikuek oso

gutxitan esaten dute hormona bidezko antisorgailuekin zer gerta daitekeen. Eskuorria irakur dezakezu, baina askotan ez dakit hori onerako edo txarrerako ote den.

Medikuaren aldetik kontrol bat, horixe behar dugu; pilulak hartzen hasi eta aste batzuetara medikuarenera joan eta galdetegi bat erantzutea, adibidez. Eta galdera horien artean sexu desioaren ingurukoak ere egon behar dira. Askotan emakumeek ez dakite hori gertatu daitekeela eta agian medikuak horri buruz galdetu arte ez dute pentsatu horren inguruan. Medikua- ren aldetik ere atentzio hori jaso behar dugu.

1960. urtean hasi zen ahotiko antisorgailuen bidea eta haurdunaldia ekiditeko bigarren metodorik erabili- ena da gaur egun Estatu espainole- an. Zure artikulua ez da pilu- la horien kontrakoa.

Ez, ez. Antisorgailuek aukera asko eman dizkiete emakumei haurdunaldia ekiditeko. Oso interesgarria da sortu zirenetik gaur egunera arte iritzi sozialak nolako garapena izan duen. Hasiera batean emakumeen botere hori izatea izugarritzko aldaketa izan zen gizartean eta gaur egun beste gaitz askoren minak edo kalteak kontrolatzeko erabil daitezke: obario polikistikoak, beste gaitxotasun batzuk sendatzeko hartzen diren botiken ondorioak... Oso onuragarriak dira. Aldarrikapena albo efektuetan dago. Zergatik onartu behar ditugun hainbeste albo efektu ezer gertatuko ez balitz bezala.

Pilula antisorgailuen kasuan, emakumeen bizkar daude bai ardura eta bai albo ondorio horiek.

ANE PORTILLO BLANCO

BIOKIMIKARIA ETA CAF-ELHUYAR SARIDUNA

«Emakumeen libidoaren heriotza: epaiketa-garaia» dibulgazio artikulua- rekin irabazi du Caf-Elhuyar saria. Epai- ketara eramaten ditu hormona bidezko antisorgailuak, emakumeen sexu desioa hiltzearen susmagarri gisa.

Bai, hori ere badago. Orain badirudi gizonezkoek hartze-ko antisorgailuak garatzen ari direla, baina zalantza daukat maila sozialean zer-nola-ko interesa sortuko duten. Akaso gizartea pozik dago emakumeok gure burua kontrolatuta.

Mahai gainean jarri duzu ertz asko dituen gaia. Balioko ote du emakumeen libidoaz askexeago hitz egiteko?

Bai, beharrezkoa da horri buruz hitz egitea eta Interneten era honetako informazioa eskuratzeko aukera izatea. Agian baten bati kostatu egingo zaio medikuarenera joatea libidoaz hitz egiteko, baina sarean artikululu hau topa dezake, bibliografian eta ikerketa zientifikoetan oinarritutakoa. Askotan, emakumeen libidoaz informazioa bilatzen hasten zarenean emakumeei zuzendutako azaleko blogetan amaitzen duzu. Interesgarria da ikerketa zientifikoetan oinarritutako artikululuak izatea eta, gainera, euskaraz.

Epaiketarekin amaitzeko. Laburbildu ditzakezu ondorio nagusiak?



«Medikuaren aldetik kontrol bat, horixe behar dugu; pilulak hartzen hasi eta aste batzuetara medikuarenera joan eta galdetegi bat erantzutea, adibidez. Eta galdera horien artean sexu desioaren ingurukoak ere egon behar dira»

Datuek esaten dute emakumeen %21ek bakarrik azaltzen dizkiotela medikuari bere sexu arazoak. Era berean, medikuek ez dute alderdi sexualarekin lotutako galderarik egiten, edo ez dute azalpenik ematen aho bidezko antisorgailuen tratamendua agintzen dutenean.

Sexua garrantzitsua da pertsonen ongizaterako, eta libidoa desagertzeak ongizate horri eragin diezaioke. Medikuen

zein pazienteen aldetik arazo hori lantzen ez bada, isilpean geratzen da, eta, azkenean, egunerokotasunean agertzen ez den horrek interesa galtzen du, eta ikertzeko aukerak murriztu egiten dira.

Beraz, ikerketa sakonagoak behar dira emakumeekin lotutako ezkutuan dauden gaien inguruan. Onartezina da libidoren gutxitzea albo efektu jasangarri bezala onartzea, eta medikuntzak hori existituko

ez balitz bezala jokatzera. Informazioa boterea da, bai zientziarako, bai emakumeen bizi kalitaterako.

Aho bidezko antisorgailuak eta libidoa berriro epaimahiaren aurrera eramateko-tan geratzen zara.

Bai, eta datu bilketa egiten den bitartean, ez ezkutatu gaiak, galdetu medikuei, sorrarazi interesa, kezkatu zaitez zure sexu ongizateaz.



ireki gure leihoa



GAUR8

Zerrenda beltzaren ondorio beltzagoak

AEBek “atzerriko talde terroristen” zerrendatik ezabatuko dute ETA. Ez al da paradoxikoa bere lurretan eta bere lurretatik kanpo biolentzia erabilera handiena duen herrialde batek horrelako zerrendak eta “baimenak” eman beharra? Niri behintzat deigarria egiten zait. Guztiok dakizkigu herrialde hartako datu batzuk, adibidez, oraindik heriotza zigorra erabiltzen dutela norbanakoen aurka; edo armen erosceta eta erabilera zein den (azken egunetako irudiak eta ohikoak diren eskoletakoak ikustea besterik ez dago); edo munduko txoko uga-

ritan bultzatzen eta egiten dituzten guda armatu guztiak.

Baina detaile hori albo batera utzita, zerrenda honetan egoteak euskal herritar batzuongan bazituen ondorio batzuk. Eta ez naiz ari soilik Estatu Batuetara joateko aukerarik ez izateaz. Hori “bakarrik” balitz!! Beraien zerrenda beltz horretan geundenok (aurrekari penalak ditugunok), ezin genuen adibidez Kubara hegaldi zuzen batean joan urte hauetan guztietan zehar. Zergatik? Ba, hauxe azalpena: Kubara joaten ziren hegazkinek, 2 minutuz AEBen aire espazioa zeharkatzen zutelako. Harra-

pazank!!! Bai, bai, halaxe, 2 minutuz, lurra ez, aire espazioa pasatzen zutela hegazkin horiek! Nork jakin noraino iristen den eremu hori?

Ondorioz, zenbaitzuek ezin genuen Mexikora, Kubara, eta beste herrialde batzuetara bidaiatu zuzeneko hegaldi batekin, eskala egitera behartuta geundelarik Hego Amerikako beste herrialde bateko edo Errusiako aireportuetan. Ez dakigu zerrendatik ateratze honek afera hau konponduko duen, ez digu inork argitu oraingoz. Etxe Zuri “bakezaleak” bakezaleoi baimena ematearen zain geratzen gara. •

**Miren Azkarate
Badiola**

Izan ala jardun

**Antton Izagirre
Gorostegi**

Aurtengo maiatzean euskalgingtzak jarri digu zeresana; baita aurrera begirako zer pentsatua ere. Iruñean eta Donostian egin diren manifestaldi jendetsuek, Soziolinguistika Klusterrak ezagutzera eman dituen azterketek eta udazkenerako iragarri zaigun Euskaraldiak ikusgarritasuna eman diote euskarari.

Milaka euskaldun eta euskaltzale kaleratzeak balio handia du euskal komunitatea trinkotu eta euskara ardatz modura hartuta egituratze bidean.

Hala ere, sentimendu gazi-gozoak eta gorputzaldi hotza utzi digu errealitatearen gordinak. Manifestaldian ibili garen bitartean komunitatearen osagaiak bizi-rik diren usteak indartu zaizkigu. Behin elkarrekin egindako kalez kaleko ibilal-

dia amaitutakoan, gutxi iraun du usteak. Asmo beraren atzean ordu pare batez elkarrekin joandakoengan sortutako zirrarak ez du jarraipenik izaten luzaro. Behin barreiatutakoan sortzen zaizkigun sentipenak bestelakoak izan ohi dira.

Oraingoan ere, barreiatzearekin batera komunitatea hauskorra den pertzepzioak gaina hartu zuen gure iruditerian. Dagoeneko euskaraz ia oso gutxi entzuten zen inguruan. Aldi batean sortu genuen burbuila hura hustu eta beste errealitate bat genuen begi-belarrien aurrean.

Errealitate hori bera irudikatu berri digu Klusterraren analisiak: badela itxaropenerako motiborik, nahiz eta amildegiaren ertzean urte luzez iraun,

edo alderantziz, amildegiaren ertzean gaudela jakinaren gainean, itxaropena piztu behar dugula.

Euskal komunitateko kide izateko erak anitzak izan behar omen dira, oso komunitate zabala dugun ustea hedatua dago geure artean. Hala ere, aldea dago izatetik izatera. “Izate” hutsa ez dugu nahikoa. “Pertinentzia” ezaugarria, kideza kontziente modura ulertua, geureganatu beharra dugu eta ezinbestean, euskaratik egin beharko dugu.

Modu horretan ulertzen dugu komunitatea eta ekimen kontziente horren lekuko beharko luke izan Euskaraldiak.

Euskal ereduaz ere asko hitz egingo den honetan, euskararen erabileran eraginkor jardun duen komunitateak eraiki beharko du. Prest al gaude? •



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Pantaila txiki, umore handi

Sitcom»-en garaia itzaltzen ari dela iruditzen zait, beste estilo bateko komediak egiten baitira gaur egun. Askoz ere zorrotzagoak, errealistagoak, ikus-entzunezkoen lengoaia askoz ere hobeto zukutzen dutenak, gidoi ahaltuak jorratuz, benetako kokalekuetan grabatuz eta tonu zuria albo batera utziz. Uste dut telebistako komediari oro har ez zaiola nahikoa aitormen egin, balio handiagoa eman zaio beti dramari edo beste generoei, komediaren gainetik. Horregatik, 50 urte inguru atzera egingo dut jauzi, umoreak pantaila txikian izan duen bilakaera aztertzeke eta nire omenaldi xumea eskaintzeko.

60-70eko hamarkada: Monty Python

50eko hamarkadan “I love Lucy” telesailaren lehen atala emititu zen, eta ekoizpen horrek telebistako komediaren formatua irauli zuen arren, zuen baimenaz, hamarkada bat aurrerago egingo dut jauzi. Derrigorrezkoa iruditzen zait britainiar umoregile talde ezagun batek, Monty Python-ek alegia, umorean izan duen garrantzia aipatzea. “Flying Circus” telesaila jarriko nuke ibilbide honen abiapuntu gisa. Monty Python taldeak sortu eta protagonizatutako telesail britainiarra da eta lau denboraldi ditu, guztira 45 atal. Esketx laburretan oinarritzen zen, eta kritika sozialak karga

Pantaila txikiko generoen artean umorea aipatzen badut, ziurrenik gehienoi «sitcom» hitza etorriko zai-zue burura. «Situation comedy» (egoera komedia), esapiderearen laburdura den hitz ezagun hori pertsonaia berak leku beretan dituzten atalez osaturiko umorezko telesaila da; atal laburrak, zuzenean grabaturik, ikusleak dauden plato batean eta latak barreak dituen. Hori argituta, gaur ez dut azpigenere ezagun horretan soilik zentratu nahi, umorearen arloan eta konkretuki telebistan, errepaso kronologiko bat eginenez, arrastoa utzi duten izenburuak aipatuko baititut.



handia izaten zuen, hain berezkoa zuten umore absurdoz bustia, noski.

Hau aipatzen hasita, hurrengo geldialdia “Fawlty Towers” telesaillean egingo nuke. Soilik hamabi atal grabatu ziren arren, eragin luze eta iraunkorra izan zuen ondoren estreinatu diren telesailetan. 1970eko maiatzean “Flying Circus”-eko esketx batzuetarako kanpoko eszena batzuk filmatzeko Monty Pythonekoek Torquayko hotel batean egin-dako egonaldian inspiratu zen. Euskal Herrian 80-90eko hamarkadetan ETB1 eta ETB2 kateetan euskaraz nahiz gaztelaniaz emititu zen. Ipar Euskal Herrian, 1980-2008 urte artean, Frantziako Canal+, Arte, FR3, France 4 eta Canal Jimmy kateetan.

80ko hamarkadaren magia eta nostalgia

“Alf”, “The Golden Girls”, “Full House”, “Family Matters”, “Growing Pains”, “Punky Brewster”, “Saved by the Bell”, “Perfect Strangers”... Egunkari osoa beharko nuke 80ko hamarkadan egin ziren umorezko telesail guztiak zerrendatzeko. Familian girotzen ziren umorezko telesail nahiko zuriak, baina urte luzez audientzia lotuta mantentzea lortu zutenak. Batzuk nostalgia dosia igoarazteko aproposak diren arren, hamarkada honetatik lau nabarmenduko nituzke bereziki. Boston hiriko Cheers tabernan girotua dagoen eta telesailari izena

ematen dion “Cheers”. Bertan, ohiko bezero eta zerbitzarien eguneroko gertaerak, euren bizitzen gorabeherak eta istorio bitxiak azaltzen ziren, modu umoretsu eta oso ironikoa helduleku gisa hartuz.

“Yes Minister” satira politikoak ere arrakasta itzela lortu zuen 1986-1988. urteetan. Britainiar Gobernuaren ministerio batean kokatuta, Jim Hacker parlamentariaren ministro ibilbidea jarraitzen du. Londresko ikasle etxebizitza batean bizi diren Scumbag Collegeko lau gazte uni-bertsitarioren istorioa azaltzen digun eta Euskal Herrian oso ezagun egin zen “Gazteak” (ingelesez: “The Young Ones”) ere zerrendan egon behar zuen derrigorrez. Telesail hau ere ETBn eman zuten eta kultuzkoa bilakatu da belaunaldi hartako gazte eta ez hain gazteen artean. Eta azkenik, artikulu honek ez bailuke zentzurik izango telebistan animazioaren alorrean egin den telesail onena den hau aipatuko ez banu, “The

Simpsons”. Homer, Marge, Lisa, Bart eta Maggie-ren bizitzak 1997an Ameriketako Estatu Batuetan gehien iraun zuen animaziozko telesail bihurtu ziren. 2004an, AEBetako *sitcom* luzeenean. Eta 2009an, herrialdeko antzinatean handiena duen telesaillean –orokorrean–. Satirikoa oso, telesailak gizakiaren alderdi askoren parodia egiten du, baina batez ere erdi mailako estatubatuarren bizimodua, familia eredua eta orokorrean AEBetako kultura, gizarte eta telebista jopuntuan jarrita.

**90EKO UZTA
EMANKORRA**


Familiako *sitcom*ak 80ko hamarkadan loratzen hasi ziren arren, 90eko hamarkadaren hasieran izan zen goraldi nagusia eta horiekin batera kalitatea pixkanaka txertatzen hasi zen. Elkarriketak askoz ere zorrotzagoak ziren, bigarren irakurketak iradokitzen

zituzten eta gidoiari garrantzi handiagoa ematen hasi ziren. Mitikoenak “Sex and the City”, “Blossom”, “Futurama”, “The Fresh Prince of Bel-Air”, “Family Guy”, “Parker Lewis Can't Lose” eta “Mr Bean” zalantza izpirik gabe, baina 80ko hamarkadan egin dudana moduan, ozeano zabal horretatik hiru izenburu arrantzatu ditut soilik: “Friends”, “Seinfeld” eta “Frasier”. Zer esan dezaket lehenengoari buruz, alegia “Friends”-i buruz? Hamar denboraldiak eta 236 atalak behin eta berriz ikusi ostean, buruz ezagutzen ditugun pertsonaia, elkarriketa eta sekuentziaz josiriko klasiko bilakatu den umorezko telesaila da. 1994-2004 bitarte eman zuten telesail honek New York hiriko Manhattanen bizi den 30-40 urte arteko lagun talde baten gorabeherak azaltzen ditu: Rachel (Jennifer Aniston), Monica (Courteney Cox), Phoebe (Lisa Kudrow), Ross (David Schwimmer), Chandler (Matthew Perry) eta Joey (Matt LeBlanc).

Larry David eta Jerry Seinfeldek sortutako “Seinfeld”, al-diz, historiako beste izen erraldoia da. NBC katean aire-ratu zuten 1989 eta 1998 artean eta Manhattango apartamentu batean bizi den Jerry Seinfeld-en egunerokoa du ar-datza eta bere lagun eta ezagunen presentzia azaltzen da une oro. *Sitcom*en historiako *spinoff*-ik arrakastatsuenetako bat “Frasier” izan zen. Lehen aipatu dudana Cheers tabernako barran bere obsesio eta arazoak kontatzen aritzen zen psikiatra, izen bereko telesaillean irratsaio batean kontatuko zituen. Hamaika denboraldi iraun zuen Kelsey Grammer protagonista zuen komedia berezi honek.

**Euskal pantaila
txiki, umore handi**

1990eko hamarkadatik mugitu gabe etor gaitezen gurera, beste herrialde batzuetako ereduak egokituz, 1991n euskarazko *sitcom*-ak edo egoera



komediak egiten hasi baitziren. Eneko Olasagastik eta Carlos Zabalak sortu zituzten aurrenekoak. Zehazki, “Bi eta Bat” telesail ezaguna izan zen umorearen arloan lehenengoa. Gero, 1997. urtean “Jaun eta jabe” iritsi zen. Argumentu nagusia hemen politikarekin lotuago dago. Joxe Antonio Arizkorreta sukaldaria, Jose Ramon Soroizek antzetzua, lehendakari aukeratua da telebistan lortutako itzalari esker. Hamarkada loriatsua izan zela esan daiteke euskal umorearentzat, urte horietan “Benta Berri”, “Bertan Zoro” edo “Hau da A.U.” estreinatu baitziren, besteak beste.

Nire kuttunena ordea, urte batzuk geroago –2009an– estreinatu zen “Brinkola” da. Hasieran aipatu dudana umore absurdo zoragarri horretatik edaten duen telesail berezi eta surrealista, muturrera eramandako pertsonaia esperpentikoz osatua. Asier Altunak eta Telmo Esnalek sortu zuten.

2000ko hamarkadatik hona: kalitateak (eta kantitateak) gora

90eko hamarkada eta 2000koa izan ziren telebista modu tradizionalean kontsumitzen azkenak, plataforma digitalen etorrerak guztia irauli baitzuen 2010eko hamarkadatik aurrera. Itzuligururik gabe, gomendio sorta luze batekin hasiko naiz. Prest? “Malcolm in the Middle”, “BoJack Horseman”, “Modern Family”, “My Name Is Earl”, “The IT” “Crowd”, “How I Met Your Mother”, “Rick and Morty”, “Louie”, “Extras”, “The Big Bang Theory”, “Arrested Develop-

ment”, “Community”, “El fin de la comedia”, “Vergüenza”, “Vota Juan”, “Flight of the Conchords”, “Parks and recreations”, “Derry Girls”, “Ted Lasso”, “Catastrophe”... Garunak eztanda egin aurretik hemen geratuko naiz. Azken urteotan estreinatu diren umorezko telesail on guztiak zerrendatzea ezinezkoa baita, beraz, zuretzako kuttuna den bat ikusten ez baduzu, barkamena eskatu nahi dizut aldeztik.


Nire faboritoarekin hasiko naiz: “The Office”. Komedia-aren arloan inoiz egin den telesailik onenetarikoa. 9 denboraldi eta 188 atal ditu 2005-2013 urte bitartean AE-Betako NBC telebista katean eman zuten telesail honek. Nire kuttunen kutxan txoko pribilegiatua betetzen duen izenburua da. Dokumental faltsu formatuan grabatua, Dunder Mifflin izeneko paper enpresa baten egunerokoa islatzen du. Tira, enpresarena baino gehiago bertako langile xelebreena. 30 minutu inguruko atal oso dibertigarriak eta arinak dira, baina batez ere minutu horietan gertatuko zaizkien egoera surrealisten barrez leherrarazteko gaitasuna dute.

Emakume pertsonaia berezi hau pantaila txikian arrasto ezabaezina iruditzen zaidanez, nire bigarren aukeratua “Fleabag” da. Phoebe Waller-Bridge gidoilari eta protagonistak, azken urteetako umorezko telesail desberdin, garrantz eta lotsagabeena sortzeaz gain, azkenaldian ikusi dugun emakumezko pertsonaia harrigarriena sortzearen meritua dauka. Topiko guztietatik erabat aldentzen den pertsonaia zoragarria. “Emakume moderno” baten erretratu hori ez da beste istorioetan ikusi dugun irudi baldar ala histeriko baten

bitartez islatzen. Handinahitik erabat aldentu eta errealtate-tik gertuago kokatzen baita.

Umorearen ibilbide azkar honi amaiera emateko “Master of None” aukeratu dut. Azken urteotan oso modan jarri den *dramedia* (drama eta komedia uztartzean) azpigenaroaren zalea bazara ez galdu telesail zoragarri hau. Egune-

roko keinu txikiek duten garrantziari buruzko maisulan honek bere bizitzarekin zer egin ez dakien tipo baten istorioa kontatuko digu: New York hirian bizi den 30 urte inguruko aktorea, Dev izeneko. Hasieran pazientzia apur bat eskatzen duen arren, ohartarazi nahi dizuet telesail honetaz erabat maiteminduko zarela.





Olatz Arregi Uriarte

Donostiako UPV/EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Hizkuntza-teknologia euskararen mesedetan

Hizkuntza-teknologiak testuak eta audioak automatikoki lantzeko dauden programak, tresnak eta aplikazioak barneratzen ditu. Gaur egun gure bizitzan gero eta txertatuago daude, eta epe motzean, tresna horiek, behar bezala egokituta, ezinbestean erabiliko dira hainbat arlotan. Oinarritzko aplikazio eta tresna horietako gutxi batzuk aipatuko ditugu hemen, ondoren, horiek konbinatuta egin daitezkeen aplikazio erabilgarri batzuk azaltzeko.

- 1. Itzulpen automatikoa:** testua edo ahotsa hizkuntza batetik bestera itzultzeko, adibidez Elia, edo Itzuli.
- 2. Txatbota:** elkarrizketa ahalbidetzen duen softwarea da, hau da, ahoz edo idatziz solasaldi bat jarraitzeko gai diren programak, bai webgune komertzialetan erabiltzen direnak, bai orokorrak.
- 3. Testu-sorkuntza:** testu berria sortzeko gai diren programak, adibidez, testu berria sortu hasierako hitzak emanda, testu baten laburpena egin, edo txosten bat prestatu datu batzuk emanda.
- 4. Sentimenduen analisia:** testuetan edo audioetan dagoen sentimendua (positiboa, negatiboa...) erauzteko eta sailkatzeko softwarea.
- 5. Hizketa-ezagutzailea:** audio eta bideoak automatikoki transkribatzeko eta azpigitulatzeko tresna, adibidez Elhuyarrek sortutako Aditu plataforma.

Goian aipatutako tresnak dagoeneko garatuta daude hizkuntza askotarako (euskara barne) eta, horiek egokituta, hiru esparrutan egin daitezkeen adibide batzuk azalduko ditugu.

HTa osasungintzan. Mediku-kontsultetan sortzen diren osasun-txostenak modu automatikoki prozesatzeko gai gara egun dagoen teknologiarekin. Txosten horietan dagoen informazioa ondo erauzten bada, hau da, zein diren sintomak, zein gaixotasuna, zer-nolako tratamendua eman zaion eta zein izan den pazientearen eboluzioa, datu horiekin guztiekin medikuek tratamendu egokiak aplika ditzakete besteen esperientzian oinarrituta. Arlo honekin jarraituz, mediku-txostenaren laburpen sinplifikatua automatikoki egitea ere gaur egun egingarria da (3). Horrela, pazienteari informazio ulergarria emango litzaioke, erosoan egiten zaion hizkuntzan (1), zehazta-

sunik galdu gabe. Gainera, laburpen hauek ahots automatikoaren bidez ere jaso ditzake gaixoak, modu honetara, irakurtzeko zailtasunak dituenak ere ez luke arazorik izango informazio hori eskuratzeko.

HTa administrazioan. Akta da, oro har, administrazioan hartzen diren erabakiak jasotzeko erabiltzen den dokumentua. Gaur arte, bileretan edo plenoetan idazkaria arduratzen da akta jasotzeaz, ondoren esandakoa txukun idatzi, eta kasu batzuetan, informazio garrantzitsuena, erabakiak edo akordioak, publiko jartzeaz erakundearen webgunean.

Egun dugun teknologiarekin, hori dena euskaraz egin daiteke giza interbentzio oso txikiarekin. Sistemak bileran hitz egiten dena audio (edo bideo) batean biltzen du, eta ondoren horren transkripzioa egingo du, hau da, audio hori testu bihurtuko du (5). Testu hau zuzendu edo findu daiteke, eta bideoaren kasuan, azpigituluak ere jar daitezke, nahi izanez gero, hizkuntza ezberdinetan (1). Ondoren, transkribatutako testua, zuzenean akta izan daitekeena, laburtu daiteke (3) eta informazio garrantzitsuena atera, adibidez bertan hartutako erabakiak. Informazio hori erakundearen webgunera eraman daiteke eta hizkuntza ezberdinetan erakutsi (1).

HTa turismoan. Arlo honetan badira zenbait aplikazio beste hizkuntzetarako garatuak, euskarara erraz ekar daitezkeenak. Adibidez, turistek edo herritarrek produktuen edo ekimenen inguruan duten iritzia jasotzeko (4) edo informazio turistikoaren zein ondarearen berri modu eleaniztunean eskaintzeko (1). Turismo bulegoetan egin ohi diren kontsultak aztertuta, txatbot eleaniztuna garatu daiteke Euskal Herriko informazio turistikoa emateko (2). Herri batera goazenean ohituta gaude Interneten herriko informazioa bilatzen, baina informazio hori osatu daiteke elkarrizketa-sistema orokorra diseinatzen bada, non herrian ikustekoez gain, uneko ekitaldien informazio zehatza (ordua, tokia...) edo informazio praktikoa (jartetxeak, garraraioa...) galdera-erantzun sistema bidez eman daitekeen. Erabiltzaileak galderak bere ama-hizkuntzan egingo lituzke, eta sistemak, erantzunak ere (ahoz zein idatziz) bere hizkuntzan emango lizkioke (1). “Elkarrizketa” bukatuta, emandako informazioarekin asetze-maila zein den jakin daiteke erabiltzailearen erantzunak aztertuta edo hizketaren tonua zein erabilitako hitzak analizatuta (4). •



Txatbota elkarrizketa ahalbidetzen duen softwarea da. GAUR8

BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



EGILE EZEZAGUNA. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA.

ERREPUBLIKAKO AIRE INDARREN BURU IZAN ZEN GASTEIZTARRA

Gasteizen jaioa, Ignacio Hidalgo de Cisneros (1896-1966) familia karlistakoa zen eta 1936ko gerran Errepublikako Aire Indarren buru izan zen pilotu bat izan zen. Afrikako Gerran, ziape gasezko bonbak botaz, rifterren posizioak bonbardatu zituen airetik. Goian ageri den argazkia garai horretakoa da. Urte batzuk geroago, «zitalkeriatzat» jo zituen bonbardaketa horiek eta damututa agertu zen. 1930eko abenduaren 15ean, Madrilgo Cuatro Vientos aerodromoko era-soan parte hartu zuen Errepublika aldarrikatzeko ahaleginean. Besteak beste, errege jauregia airetik bonbardatzea zen bere helburuetako bat, baina ez zu-ten halakorik egin. Saiakera horren ondoren, lehenik Portugalera erbesteratu zen eta gero Frantziara. 1931n Errepublika aldarrikatu ondoren itzuli zen. Ha-rremana izan zuen -kasu batzuetan laguntasuna- Antoine de Saint-Exupery, Rafael Alberti, Teresa Leon, Federico Garcia Lorca, Pablo Neruda, Ernest Hemingway, Eleanor Roosevelt, Robert Capa, John Dos Pasos eta Andre Malrauxekin, besteak beste. 36ko gerran eta errepublikar hegazkingintzako buruzagi postutik, 1937an, Erroma, Italia faxistako hiriburua, bonbardatzea proposatu zion Negrinen gobernuari, baina azkenean baztertu egin zuten plana. 1938an Alderdi Komunistan afiliatu zen eta Ebroko batailaren ondoren Stalinekin hegazkinak, tankeak eta armak erosteko negoziazioetan parte hartu zuen. 1939ko martxoan erbesteratu zen beste buruzagi komunista batzuekin batera. Alderdi Komunistako batzorde zentraleko kidea, Parisen, Varsovian, Moskun eta Bu-karesten erbesteratuta egon zen, eta 1966an hil zen. 1994an, Gasteizko hilerrian utzi zituzten haren gorpuzkiak.

010 bidaia

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

SAMOA

TANGAROA
JAINKOAREN LURRA

INAZIOTAR BIDEA

500 URTE
GEROAGO

SORATXIPI

UR ISURIAN
JAUZIKA

KRUGER SHALATI

ZUBITIK ZINTZILIK
DAGOEN TREN-HOTELA

BERAT ETA GJIROKASTËR

ALBANIAKO
HARRIBITXIAK

Bertatik bertara Photomuseum, argazki & zinemaren historiaren topaleku **Egin planak** "Surfing Euskadi", olatu gaineko historia;
XVIII. mendeko patatxaren erreplika, kostaldean; Gorbeia inguruko zaldien erakustaldia... **Munduan pasieran** «PHOTO 2022, Australiako argazkilaritza biurtekoa;
Audrey Hepburnen estatua, Bruselan; "Machu Picchu eta Peruko altxorrak", Parisen ikusgai; Maip macrotorax, megarraptorik handiena...

